100,101,102 (1030),(1040) 110 112,1141 113,1140,1142,1143,1144,115,119 — — (108),(109) 120 (121) 118 129 (557) 111 133 1340,1341 136; (UKPA 6.ª 13) 135; (UKPA 6.ª 14) 137 130,131,132 140 145 146 141,142,143,147 177,178,179 1605,170 1625,174 176 1615,1635,171,172,173,175,180,185,189 1603,1604,1613,1614,1623,1624,1633,1634 479 181 UKPA 6.ª 16 15; (UKPA 6.ª 17) 585,586,587,588,589 499,529 — — 500,501,505,506 5105,520,527 5125,524 5595,5598 (1034),(1044) (190),(192),194,509,5115,5135,5145,521,522,523, 525,526,528,551,5525,555,5565,5566, 560,561,569 5103,5104,5113,5114,5123,5124,5133,5134,5143,5144,5523, 5524,5563,5564 400,401,405,(406) UKPA 6.ª 16 UKPA 6.ª 16 403,404 41 465,466 4752 4750,4751,4758,476,477 438 485,568 502,507; UKPA 6.ª 17	A) ONDARE GARBIA A-1) Fondo propioak I. Kapitala 1. Kapital eskrituratua 2. (Kapital galdatu gabea) II. Jaulkipen prima III. Erreserbak 1. Lege- eta estatutu-erreserbak 2. Bestelako erreserbak 3. Balio-handitzearen erreserba 4. Kapitalizazio-erreserba IV. (Akzio eta ondare-partaidetza propioak) V. Aurreko ekitaldietako emaitzak 1. Gaineratikoa 2. (Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak) VI. Bazkideen bestelako ekarpenak VII. Ekitaldiko emaitza VIII. (Konturako dibidendua) IX. Bestelako ondare-tresnak A-2) Balio-aldaketen doikuntzak I. Arrazoizko balioaren arabera aktibo finantzarioak, aldaketekin ondare garbian II. Estaldurako eragiketak III. Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteak eta horiei lotutako pasiboak IV. Bihurketa-diferentzia V. Bestelakoak A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak B) PASIBO EZ-KORRONTEA I. Epe luzeko hornidurak 1. Pertsonalaren epe luzeko lantsarien obligazioak 2. Ingurumen-jardueretarako hornidura 3. Berregituratzeko hornidurak 4. Bestelako hornidurak II. Epe luzeko zorrak 1. Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak 2. Kreditu-erakundeekiko zorrak 3. Finantza-errentamenduengatik hartzekodunak 4. Deribatuak 5. Bestelako pasibo finantzarioak III. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe luzeko zorrak IV. Zerga geroratuen pasiboak V. Epe luzeko periodifikatzeak VI. Epe luzeko hartzekodun komertzialak VII. Epe luzeko ezaugarri bereziko zorrak C) PASIBO KORRONTEA I. Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteekin lotutako pasiboak II. Epe laburreko hornidurak 1. Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideei lotutako hornidurak 2. Beste hornidura batzuk III. Epe laburreko zorrak 1. Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak 2. Kreditu-erakundeekiko zorrak 3. Finantza-errentamenduengatik hartzekodunak 4. Deribatuak 5. Bestelako pasibo finantzarioak IV. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburreko zorrak V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak 1. Hornitzaileak a) Epe luzeko hornitzaileak b) Epe laburreko hornitzaileak 2. Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak 3. Hainbat hartzekodun 4. Pertsona (ordaintzeko dauden lantsariak) 5. Zerga korrontearen pasiboak 6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak 7. Bezeroek emandako aurrerakinak VI. Epe laburreko periodifikatzeak VII. Epe laburreko ezaugarri bereziko zorrak ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A + B + C)

(1) Korrespondentzia, berebat, kontuan hartzen dira 2007ko Kontabilitate Plan Orokorreko hirugarren zatian garatzen diren Urteko kontuak prestatzeko arauetan (UKPA) aurreikusitako partidak.
(2) Letra etzanez nabarmentzen dira UKPA arauetan aurreikusita dauden partidak.

GALDU-IRABAZIEN KONTU NORMALEKO KONTZEPTUEN ETA 2007ko KONTABILITATE PLAN OROKORRAREN ARTEKO KORRESPONDENTZIA

KONTU ZK. (1)	(ZOR) HARTZEKO (2)
700,701,702,703,704,(706),(708),(709) 705 — (6930),71*,7930 73 (600),6060,6080,6090,610* (601),(602),6061,6062,6081,6082,6091,6092,611*,612* (607) (6931),(6932),(6933),7931,7932,7933 75 740,747 (640),(641),(6450) (642),(643),(649) (644),(6457),7950,7957 (62) (631),(634),636,639 (650),(694),(695),794,7954 (651),(659) — (68) 746 7951,7952,7955,7956 (690),(691),(692),790,791,792 (670),(671),(672),770,771,772 — 774; (UKPA. 7.ª 6) (678),778; (UKPA 7.ª 9) 7600,7601 7602,7603 7610,7611,76200,76201,76210,76211 7612,7613,76202,76203,76212,76213,767,769 746; (UKPA 7.ª 4) (6610),(6611),(6615),(6616),(6620),(6621),(6640),(6641),(6650),(6651), (6654),(6655) (6612),(6613),(6617),(6618),(6622),(6623), (6624),(6642),(6643),(6652),(6653),(6656),(6657),(669) (660) (6630),(6631),(6633),(6634),7630,7631,7633,7634 (6632),7632 (668),768 (696),(697),(698),(699),796,797,798,799 (666),(667),(673),(675),766,773,775 — — — (6300)*,6301*,(633),638	A) ERAGIKETA JARRAITUAK 1. Negozio-zifraren zenbateko garbia a) Salmentak b) Zerbitzu-emateak c) <i>Holding</i> sozietateen finantza-izaerako diru-sarrerak 2. Produktu bukatuen eta fabrikazio-bideko produktuen izakinen aldakuntza 3. Enpresak bere aktiborako egindako lanak 4. Hornikuntzak a) Salgaien kontsumoa b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa c) Beste enpresa batzuek egindako lanak d) Salgaien, lehengaien eta bestelako hornikuntzen narriadura 5. Ustiapeneko bestelako sarrerak a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak 6. Pertsonal-gastuak a) Soldatak, lantsariak eta antzekoak b) Karga sozialak c) Hornidurak 7. Ustiapeneko bestelako gastuak a) Kanpoko zerbitzuak b) Bestelako tributuak c) Eragiketa komertzialetako galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak e) Berotegi-efektuko gasak isurtzeari lotutako gastuak 8. Ibilgetuaren amortizazioa 9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena 10. Hornidura-soberakinak 11. Ibilgetuaren narriadura eta besterentzearen emaitza a) Narriadurak eta galerak b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak c) <i>Holding</i> sozietateen ibilgetuak besterentzeak ekarritako okerragotzea eta emaitzak 12. Negozio-konbinazioetako diferentzia negatiboa 13. Bestelako emaitzak A.1) USTIAPENEKO EMAITZA (1 + 2 + 3 + 4 + 5 + 6 + 7 + 8 + 9 + 10 + 11 + 12 + 13) 14. Sarrera finantzarioak a) Ondare-tresnetako partaidetzen sarrerak a 1) Taldeko enpresa eta elkartuetakoak a 2) Hirugarren enpresetakoak b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak b 1) Taldeko enpresa eta elkartuetakoak b 2) Hirugarren enpresetakoak c) Izaera finantzarioko diru-laguntza, dohaintza eta legatuen egozpena 15. Gastu finantzarioak a) Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrenak b) Hirugarrenekiko zorrenak c) Hornidurak eguneratzearenak 16. Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza a) Arrazoizko balioa, aldaketekin galera eta irabazietan b) Arrazoizko balioen doikuntzen transferentziak, aldaketekin ondare garbian 17. Kanbio-diferentziak 18. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak a) Narriadurak eta galerak b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak 19. Finantza-izaerako bestelako diru-sarrerak eta gastuak a) <i>Finantza-gastuen aktiboan eranstea</i> b) <i>Hartzekodunen hitzarmenetatik eratorritako diru-sarrera finantzarioak</i> c) <i>Gainerako diru-sarrerak eta gastuak</i> A.2) EMAITZA FINANTZARIOA (14 + 15 + 16 + 17 + 18 + 19) A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA (A.1 + A.2) 20. Mozkinen gaineko zergak A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA (A.3 + 20) B) ETENDAKO ERAGIKETAK 21. Ekitaldian etendako eragiketetatik sortutako emaitza, zergarik gabe A.5) EKITALDIKO EMAITZA (A.4 + 21)

* Zeinu positiboa edo negatiboa izan dezake.

(1) Korrespondentzia, berebat, kontuan hartzen dira 2007ko Kontabilitate Plan Orokorreko hirugarren zatian garatzen diren Urteko kontuak prestatzeko arauetan (UKPA) aurreikusitako partidak.

(2) Letra etzanez nabarmentzen dira NECAk aurrez ikusitako donitu-sailak eta ICACi planteatutako kontsulten erantzunak.

KONTABILIZATUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRI NORMALEKO KONTZEPTUEN ETA 2007ko KONTABILITATE PLAN OROKORRAREN ARTEKO KORRESPONDENTZIA

KONTU ZK. (1) (2)	
	A) Galdutalabazien kontuaren emaitzak
	Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak
	I. Finantza-tresnen balorazioagatik
(800),(89),900,991,992	1. Arrazoizko balioaren araberrako aktibo finantzarioak, aldatetekin ondare garbian
	2. Bestelako sarrerak/gastuak
(810),910	II. Diru-fluxuen estaldurengatik
94	III. Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak
(85),95	IV. Galdutalabazi aktuarialengatik eta bestelako doikuntzengatik
(860),960; (UKPA 8.ª 1.2)	V. Saltzako mantendutako aktibo ez-korronteengatik eta horiei lotutako pasiboengatik
(820),920; (UKPA 8.ª 1.3)	VI. Bihurketa-diferentziak
(8300)*,8301*,(833),834,835,838	VII. Zerga-efektua
	B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak guztira (I + II + III + IV + V + VI + VII)
	Galdutalabazien kontura egindako transferentziak
	VIII. Finantza-tresnen balorazioagatik
(802),902,993,994	1. Arrazoizko balioaren araberrako aktibo finantzarioak, aldatetekin ondare garbian
	2. Bestelako sarrerak/gastuak
(812),912	IX. Diru-fluxuen estaldurengatik
(84)	X. Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak
(862),962; (UKPA 8.ª 1.2)	XI. Saltzako mantendutako aktibo ez-korronteengatik eta horiei lotutako pasiboengatik
(821),921; (UKPA 8.ª 1.3)	XII. Bihurketa-diferentziak
8301*,(836),(837)	XIII. Zerga-efektua
	C) Galdutalabazien kontura egindako transferentziak guztira (VIII + IX + X + XI + XII + XIII)
	KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA (A + B + C)

* Zeinu positiboa edo negatiboa izan dezake.

(1) Korrespondentzian, berebat, kontuan hartzen dira 2007ko Kontabilitate Plan Orokorreko hirugarren zatian garatzen diren Urteko kontuak prestatzeko arauetan (UKPA) aurreikusitako partidak.

(2) Letra etzanez nabarmentzen dira UKPA arauetan aurreikusita dauden partidak.

MEMORIA NORMALA (Kontuan izan beharreko arauak)

Memoria normalean sartu beharreko informazioaren zati bat normalizatzen duten koadroak aurkezten dira dokumentu honetan, Kontabilitate Plan Orokorrean ezartzen denaren arabera (azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua). Koadro horiek erabiliz errazagoa da urteko kontuak egin eta merkataritza-erregistroetan gordailutzea agintzen duen erregistro-obligazioa betetzea. Memoria egitean kontuan izan beharko da, nolana ere, Kontabilitate Plan Orokorreko hirugarren zatian urteko kontuak prestatzeko «10. Memoria» arauak dioena:

«Urteko kontuak osatzen dituzten gainerako dokumentuetan jasotako informazioa osatu, zabaldu eta azaldu egiten du memoriak. Formulatzeari, puntu hauek kontuan izan behar dira:

1. Bete beharreko informazio minimoa ematen da memoria-ereduan; hala ere, eskatzen den informazioa esanguratsua ez denean, ez da eman beharrik izango.
2. Memoria-ereduan egon ez arren, informazioaren bat ematea beharrezkoa bada enpresak ekitaldian zehar izan duen egoera eta jardura ezagutzera emateko eta aurkezten diren urteko kontuak hobeto ulertu ahal izateko eta, azken batean, enpresaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusteko, informazio hori ere eman beharko da memorian; bereziki, aurreko ekitaldiko egoerari buruzko datu kualitatiboak sartuko dira, esanguratsuak direnean. Gainera, beste araudiren batek memorian sartu beharreko informazioaren bat ezartzen badu, hori ere sartu egin beharko da.
3. Urteko kontuek esplikatzeko duten ekitaldiko informazio kuantitatiboa eta, konparazioa egiteko, aurreko ekitaldikoa eman behar dira memorian, kontabilitate-arauren batek espezififikoki kontrakorik esan ezean.
4. Memorian enpresa elkartuei buruz ezarritakoa, talde anitzeko enpresentzat ere badela ulertuko da.
5. Memoriako 4. oharrean ezarritakoa egokitu egin beharko da aurkezpenerako, sintetizatuz eta argi azaldu beharra betez, betiere».

Ondoren, Kontabilitate Plan Orokorreko Memoriaren edukia transkribatzen da. Idatz-zati bakoitzean esaten da erabat edo zati batean normalizatuta dagoen dokumentu honen bukaeran aurkezten diren koadroetan. Erabiltzen diren koadroei gehitu beharko zaie, dena den, Memoriaren edukian eskatzen den gainerako informazioa (dokumentu honetan normalizatuta azaltzen ez dena), eta beste xedapen batzuetatik sor daitekeena. Idatz-zati bakoitzean letraz zerrendatu dira normalizatutako koadroak. **Elementu, kontratu, eragiketa eta abarren mota bakoitzari buruzko informazio xehea eskatzen den idatz-zatietan, koadro normalizatuak sartu dira datu partzialen totala ematen duten zenbatekoentzat, baina ez, ordea, zati bakoitzarentzat. Koadro normalizatua betetzeak ez du banakako datu xeheak emateetik salbuesten.**

MEMORIA NORMALAREN EDUKIA

1. ENPRESAREN JARDUERA

Enpresaren helburu soziala eta nolako jarduera edo jarduerak egiten dituen azalduko da idatz-zati honetan. Zehazki:

1. Enpresaren egoitza eta forma juridikoa, eta jarduerak egiten dituen lekua, egoitza sozialean egiten ez baditu.
2. Enpresaren ustiapenaren deskripzio bat, jarduera nagusiak zein diren azalduz.
3. Bateratzeko betebeharra.
- 3.1 Talde bateko enpresa menderatzailea izanez gero, Merkataritzaren kodeko 42. artikuluan aurrez ikusitako baldintzetan, urteko bateratutako kontuen formulazioari buruzko jakinarazpena egingo da, haien formulazio-gabezia justifikatzen duen eragozpen motari buruz, Kode horretako 43. artikuluan jasotakoan artean.
- 3.2 Sozietate-talde batekoa denean, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan ezarritako baldintzen arabera, sozietate gurasoaren egoitza Espainiako lurraldetik kanpora egon arren, sozietate-taldearen eta zuzeneko sozietate gurasoaren eta taldeko azken gurasoaren izena eman beharko da, eta gainera, sozietate horien egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak nongo Merkataritzako Erregistroan dauden gordailututa, kontu horien formulazio-data edota, bidezkoa bada, kontsolidatzeko obligazioetatik salbuesten duten zirkunstantziak.
4. Euroa ez den moneta funtzionalen bat dagoenean, garbi azaldu beharko da gorabehera hori, erabaki hori hartzeko kontuan izan diren irizpideak adieraziz.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau ez dago normalizatuta. Aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

1. Irudi fidela:
 - a) Enpresak esplizituki adierazi beharko du urteko kontuek enpresaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dutela eta diru-fluxuen egoera-orrian aurkeztutako fluxuak benetakoak direla.
 - b) Irudi fidela ematearren kontabilitate-arloko lege-xedapenen bat aplikatzen ez denean, horretarako egon diren arrazoi bereziak, aplikatu ez den lege-xedapena zein izan den, eta jokabide horrek informazioa aurkeztu den ekitaldi bakoitzean enpresaren ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan izan duen eragin kualitatibo eta kuantitatiboa.
 - c) Irudi fidela erakusteko legeak agindutakoa aplikatzea aski ez denean, behar diren informazio osagarriak, memoriako zein puntutan dauden zehaztuz.
 - d) 2013ko urriaren 18ko KKAren ebazpenaren arabera, funtzionamenduan dabilen enpresaren finantza-informazioari buruzkoa aplikatzea ez dagokionean, horrelako egoeran dauden enpresek euren memoria doitu beharko diote finantza informazioaren marko orokorrari. Hala ere, eskatzen den informazioa esanguratsua ez den kasuetan, enpresok "likidatzeko" atakan daudenez, dagokion idatz-zatiak betetzeke utziko dira.
2. Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak.
3. Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak.
 - a) Ohar bakoitzean adierazi beharrekoaz gain, idatz-zati honetan azalduko dira etorkizunari buruzko funtsezko hipotesiak eta ekitaldi-itxieran ziurgabetasuna estimatzeko dauden datu esanguratsuak, datu horiek datorren ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa garrantzitsuak izateko arriskua erakusten badute. Aktibo eta pasibo horien izaerari buruzko informazioa eta itxiera-datan duten kontabilitate-balioa ere eman beharko da.
 - b) Kontabilitate-estimazioan egindako aldaketa esanguratsu ororen izaera eta zenbatekoa zehaztu behar da, aldaketak uneko ekitaldia ukitzen badu edo etorkizuneko ekitaldiak uki baditzake. Etorkizuneko ekitaldietan izango duen eragina zenbatetsi ezin denean, ezintasun hori ere adieraziko da.
 - c) Zuzendaritzak gertakizun edo baldintzen gainera ziurgabetasun garrantzitsuak daudela ikusiz gero, eta horrek enpresaren funtzionamendu egokiari eragin diezaiokeela ikusiz gero, atal honetan jakinaraziko du. Urteko kontuak ez badira funtzionamenduan dabilen enpresa-printzipioaren arabera eratzen, horren berri esplizitua eman beharko du, bai eta funtzionamenduan dabilen enpresatzat ez jotzeko arrazoiekin batera. Horrez gain, espresuki aipatuko da urteko kontuak eratu direla funtzionamenduan dabilen enpresaren printzipio egokia ez deneko 2013ko urriaren 18ko KKAren ebazpena aplikatuz.
4. Informazioaren konparazioa.

Hurrengo idatz-zatietan kontabilitate-irizpideak aldatzeaz eta errore-zuzenketaz esaten denaz gain, informazio hau eman behar da:

- a) Aurreko ekitaldiko balantzearen, galdu-irabazien kontuaren, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren eta diru-fluxuen egoera-orriaren egitura aldatzea justifikatzen duten aparteko arrazoiak.
- b) Ekitaldiko kontuak aurreko ekitaldikoekin konparatzea eragotzen duten arrazoiaren azalpena. Zehazki, funtzionamenduan dabilen enpresaren printzipioa aplikatzea egokia ez deneko finantza-informazioaren markoa erabiltzen den lehen ekitalditik bertatik, azaldu beharko da hura aurreko ekitaldiarekin ezin konpara daitekeela, finantza-informazioaren markoa aldatu delako.
- c) Aurreko ekitaldiko zenbatekoak konparagarri bihurtzeko egin diren egokitzapenen azalpena edo, bestela, ezin izan badira egokitu, egokitzapena eragotzi duten aparteko arrazoiak.

5. Partidak elkartzea.

Balantzean, galdu-irabazien kontuan, ondare garbiko aldaketen egoera-orrian edo diru-fluxuen egoera-orrian elkartuta aurkeztu diren partiden banakatzeari buruzko informazioa emango da.

Aurreko informazio hori eman beharrik ez da izango, banakatze hori memoriako beste idatz-zati batzuetan azaltzen bada.

6. Hainbat partidatan banatuta erregistratu diren elementuak.

Balantzeko bi partidatan edo gehiagotan banatuta erregistratuta dauden ondare-elementuen identifikazioa, elementuaren zenbateko osoa, zein partidatan banatuta dagoen eta partida bakoitzean duen zenbatekoa.

7. Kontabilitate-irizpideen aldaketak.

Ekitaldian zehar kontabilitate-irizpideak aldatzeagatik egin diren doikuntzen esplikazio xehea. Bereziki, gai hauei buruzko informazioa eman beharko da:

- a) Egindako aldaketaren izaera eta deskripzioa, eta aldaketak informazio fidagarriagoa eta garrantzitsuagoa zergatik ematen duen azaltzeko arrazoiak.
- b) Zuzenketa zenbatekoa izan den urteko kontuak osatzen dituzten dokumentu guztietan, konparazioa egiteko aurkezten diren ekitaldietan aldaketak ukitu dituen partidetak bakoitzean, eta
- c) Atzeraeraginez ezin bada aplikatu, ezintasun horren berri emango da, arrazoiak azalduz, eta kontabilitate-irizpidearen aldaketa noiztik aplikatu den zehaztuko da.

Irizpide-aldaketa arau berri bat aplikatu delako egin baldin bada, hori adierazi eta arauan esaten dena beteko da, etorkizuneko ekitaldietan izango duen eraginaren berri emanez.

Zati honetan ez da konparaziozko informaziorik eman beharko.

8. Errore-zuzenketa.

Ekitaldian errore-zuzenketagatik egin diren doikuntzen azalpen xehea. Bereziki, gai hauei buruzko informazioa eman beharko da:

- a) Errorearen izaera eta zenbat eta zein ekitaldian egin zen.
- b) Zuzenketa zenbatekoa izan den urteko kontuak osatzen dituzten dokumentu guztietan, konparazioa egiteko aurkezten diren ekitaldietan aldaketak ukitu dituen partidetak bakoitzean, eta
- c) Atzeraeraginez ezin bada aplikatu, ezintasun horren berri emango da, arrazoiak azalduz, eta errorearen zuzenketa noiztik aplikatu den zehaztuko da.

Zati honetan ez da konparaziozko informaziorik eman beharko.

- 9. Sozietateen likidazioetan, likidazioaren beraren nondik norakoen berri emango da, eta likidazio-baliorik onena kalkulatu da, argibide hori esanguratsua denean, hartara urteko kontuek finantza-egoeraren, enpresa-emaitzen eta ondarearen irudi leiala erakutsi dezaten, eta fidagarritasun-maila egokiarekin lortzen ahal izateko gehiegizko gastuetan sartu gabe.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau ez dago normalizatuta. Aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

3. EMAITZEN APLIKAZIOA

- 1. *Ekitaldiko emaitza aplikatzeko proposamenari buruzko informazioa, eskema honen arabera:*

<i>Banaketa-oinarria</i>	<i>Zenbatekoa</i>
<i>Galdu-irabazien kontuaren saldoa</i>	
<i>Gaineratikoa</i>	
.....	
<i>Borondatezko erreserbak</i>	
<i>Erabilera libreko bestelako erreserbak</i>	
<i>Guztira</i>	
<i>Aplikazioa</i>	<i>Zenbatekoa</i>
<i>Legezko erreserbara</i>	
<i>Erreserba berezietara</i>	
<i>Borondatezko erreserbetara</i>	
.....	
<i>Dibidenduetara</i>	
.....	
<i>Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko</i>	
<i>Guztira</i>	

- Ekitaldian zehar konturako dibidenduak banatu badira, horien zenbatekoa adierazi beharko da eta aurreikuspenezko kontabilitateko egoera-orria ere erantsiko da, legeak agindutakoaren arabera, behar adinako likidezia badagoela erakusteko formulatu beharrekoa baita. Kontabilitateko egoera-orri horrek urtebeteko epea hartuko du, konturako dibidendua banatzea erabakitzen denetik aurrera.
- Dibidenduak banatzeko mugak.
- Sozietateen likidazioetan, emaitzen aplikazioa ondare sozialaren banaketa eta likidazioari aplikagarri zaizkion arauetara doitu beharko da, beti ere hartzekodunei kredituen zenbatekoa berdindu baino lehen sozioen artean banaketarik ezin dela egin dioen legea errespetaturik.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M3 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

4. ERREGISTRATZEKO ETA BALORATZEKO ARAUAK

Ondorengo partidei aplikatutako kontabilitate-irizpideak adieraziko dira:

- Ibilgetu ukiezina; kapitalizatzeko edo aktiboratzeko, amortizatzeko eta narriaduragatik balio-zuzenketak egiteko erabili diren irizpideak zehaztuz.

Dagokionean, zehaztasunez adieraziko da zer irizpide erabili den merkataritza-funtsa esleitu zaien eskudirua sortzen duen unitateen zenbateko berreskuragarria kalkulatzeko.
- Ibilgetu materiala; erabili diren irizpideak zehaztuz: amortizatzeko, narriaduragatik balio-zuzenketak egiteko eta atzera itzultzeko edo lehengoratzeko, gastuak kapitalizatzeko, hau da, gastu finantzarioak, ibilgetua zabaldu, modernizatu eta hobetzeko kostuak, eraisteko edo erretiratzeko kostuak, kokalekua birgaitzeko edo egokitzeko kostuak kapitalizatzeko eta enpresak bere ibilgeturako egindako lanen kostua erabakitzeko erabili diren irizpideak.
- Lurra eta eraikuntzak ondasun higiezinetak inbertsio moduan kalifikatzeko erabilitako irizpidea azalduko da, aurreko idatz-zatian adierazitako irizpideak zehaztuz.
- Errentamenduak; finantza-errentamenduko kontratuak eta antzeko eragiketak kontabilizatzeko irizpideak adieraziz.
- Trukaketak; jarraitutako irizpidea azalduz eta aplikazioa justifikatuz, bereziki, trukaketa komertzial moduan kalifikatzeko izan diren inguruabarrak eta arrazoiak.
- Eginiko balio-eguneraketetan erabilitako irizpideak, eragina jasandako ondare-elementuak adieraziz.
- Finantza-tresnak; hauek azalduko dira:

- a) Kategoria bakoitzeko aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak kalifikatzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideak eta, halaber, arrazoizko balioaren aldaketak kontabilizatzekoak; bereziki, enpresak jaulkitako baloreak, erabilitako tresna juridikoaren arabera printzipioz ondare-tresna moduan kalifikatu behar zirenak, zergatik kalifikatu diren pasibo finantzario moduan.
 - b) Hasieran galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako aktibo eta pasibo finantzario bezala sailkatutako aktibo eta pasibo finantzarioen izaera, eta, gainera, sailkapen hori egiteko aplikatutako irizpideak eta enpresak finantza-tresnak erregistratzeko eta baloratzeko arauan azaltzen diren betebeharrak bete dituela esaten duen esplikazioa.
 - c) Aktibo finantzarioak narriatu direla erakusten duten ebidentziak badaudela erabakitzeko, balio-zuzenketak eta atzera-itzultzeak edo lehengoratzeko erregistratzeko eta aktibo finantzario narriatuei baja emateko aplikatu diren irizpideak. Bereziki, zordun komertzialen eta kobratzeko bestelako kontuen balio-zuzenketak kalkulatzeko erabilitako irizpideak azpimarratu beharko dira. Halaber, birnegoziatu izan ez balira mugaeguneratuta edo narriatuta egongo liratekeen aktibo finantzario birnegoziatuei aplikatutako kontabilitate-irizpideak zehaztu beharko dira.
 - d) Aktibo finantzarioen eta pasibo finantzarioen baja erregistratzeko erabilitako irizpideak.
 - e) Finantza-tresna hibridoak; osagai bakoitza berezita baloratzeko erabili diren irizpideak zein izan diren azalduko da, oinarritzat hartuz bakoitzaren ezaugarriak eta arrisku ekonomikoak, edota, osagaiak bereizi ezin badira, bereizi ezina azalduko da. Gainera, erabilitako balorazio-irizpideak azalduko dira, erreferentzia berezia eginez narriaturagatik egindako balio-zuzenketei.
 - f) Finantza-tresna konposatuak; pasibo finantzario bezala kalifikatu behar den osagaia zenbatesteko jarraitu den balorazio-irizpidea azaldu behar da.
 - g) Berme finantzarioko kontratuak; bai hasierako balorazioan eta bai gerokoan jarraitutako irizpidea.
 - h) Taldeko enpresetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioak; inbertsio horien balorazioa egiteko baliatutako irizpideen berri emango da eta narriaturagatik egindako balio-zuzenketak erregistratzeko aplikatu den irizpidea azalduko da.
 - i) Kategoria bakoitzeko finantza-tresnetatik sortutako sarrerak eta gastuak erabakitzeko erabilitako irizpideak: interesak, primak edo deskontuak, dibidenduak, etab
 - j) Enpresaren esku dauden ondare-tresna propioak, baloratzeko eta erregistratzeko erabilitako irizpideak adieraziz.
8. Kontabilitate-estaldurak; enpresak estaldura-eragiketetan aplikatutako balorazio-irizpideak adieraziko dira, arrazoizko balioen estaldurak, diru-fluxuen estaldurak eta atzerriko negozioetan egindako inbertsio garbien estaldurak bereziz, eta halaber, eteten direnean, etenduraren kontabilitate-ondoreak erregistratzeko aplikatutako balorazio-irizpideak, eta zergatik eten diren.
9. Izakinak; balorazio-irizpideak adierazita, batez, ere, narriaturagatik egindako balio-zuzenketei eta gastu finantzarioen kapitalizazioari buruzkoak.
10. Atzerri-monetan egindako transakzioak, hauek azalduz:
- a) Atzerri-monetan egindako transakzioak baloratzeko eta kanbio-diferentziak egozteko irizpideak.
 - b) Moneta funtzionala aldatu bada, azaldu egin beharko da, eta baita aldaketa egiteko arrazoia ere.
 - c) Urteko kontuetako elementu batzuk orain edo jatorrian atzerri-monetan baloratutakoak direnean, elementu horiek eurotara bihurtzeko kanbio-tasa kalkulatzeko erabili den prozedura azalduko da.
 - d) Aurkezpen-monetara bihurtzeko erabili den irizpidea.
11. Mozkinen gaineko zergak; zerga geroratuen aktiboak eta pasiboak erregistratzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideen azalpenarekin.
12. Sarrerak eta gastuak; ezarritako irizpide orokorrak adieraziz. Bereziki, ondasunak emateagatiko eta zerbitzuak emateagatiko sarrerei dagokienez, enpresak bere gain hartutako obligazioak denboran zehar edo une jakin batean betetzen direla ondorioztatzeko erabilitako irizpidea; zehazki, denboran zehar betetzen direnei dagokienez, aurrerapen-maila zehazteko erabilitako metodoak adieraziko dira, eta kalkulua egitea ezinezkoa bada, horren berri emango da.
13. Hornidurak eta kontingentziak; balorazio-irizpidea azalduko da, eta, horrelakorik dagoenean, obligazioa likidatzen denean hirugarren batengandik jasotzekoak diren konpentsazioen tratamendua. Bereziki, hornidurei dagokienez, arrisku bakoitza zenbatesteko eta kalkulatzeko metodoaren azalpen orokorra eman beharko da.
14. Ingurumen-izaerako ondare-elementuak, azalduz:
- a) Ingurumen-helburuetarako xedatutako zenbatekoak baloratzeko eta, halaber, emaitzetara egozteko irizpideak Bereziki, zenbateko horiek ekitaldiko gastu bezala edo dagokion aktiboaren balio handiago bezala hartzeko jarraitu den irizpidea azalduko da.
 - b) Ingurumen-inpaktuaren ondoriozko hornidurak zenbatesteko eta kalkulatzeko metodoaren azalpena.

15. Pertsonal-gastuak erregistratzeko eta baloratzeko erabili diren irizpideak, pentsioen konpromisoei dagozkienak bereziki.
16. Akzioetan oinarritutako ordainketak, kontabilizatzeko erabili diren irizpideak azalduz.
17. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak; sailkatzeko eta, hala dagokienean, emaitzetara egozteko erabili den irizpidea adieraziz.
18. Negozio-konbinazioak, erregistratzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideak azalduz.
19. Baterako negozioak; partaide den baterako negozioari dagozkion saldoak urteko kontuetan sartzeko erabili diren irizpideak adieraziz.
20. Loturadun alderdien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak.
21. Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteak; aktibo edo elementu-multzo horiek saltzeko mantendutakotzat sailkatzeko eta baloratzeko erabili diren irizpideak azalduko dira, pasibo elkartuak ere bertan sartuz.
22. Etendako eragiketak; jardura bat etendakotzat identifikatzeko eta sailkatzeko irizpideak, eta horrek sortzen dituen sarrerak eta gastuak.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau ez dago normalizatuta. Aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

5. IBILGETU MATERIALA

1. *Epigrafe honetan sartutako balantzeko partida bakoitzak ekitaldian izan duen mugimenduaren analisia, bakoitzaren amortizazio metatua eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak, ondorengoa azalduz:*
 - a) *Hasierako saldoa.*
 - b) *Sarrerak edo zuzkidurak, negozio-konbinazio bidez egindako eskuratzek eta diruaz bestelako ekarpenak zehaztuz, eta baita zabalkuntza edo hobekuntzei dagozkienak ere.*
 - c) *Eguneraketak 2012ko abenduaren 16/2012 Legearen babesean egiten direnean, honako hauek adierazi behar dira:*
 - *Balantzean eginiko elementuen eguneratzearen zenbatekoa eta eguneratzeak amortizazioetan izandako eragina.*
 - *Higiezinak eguneratzen badira, lurzoruaren eta eraikuntzaren balioa bereizi egingo dira.*
 - d) *Narriaduragatik egindako balio-zuzenketen atzera-itzultzea.*
 - e) *Beste partida batzuetako transferentzia edo traspasoengatik izandako gehikuntzak/gutxitzeak; bereziki, saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteetara edo etendako eragiketetara egindakoak.*
 - f) *Irteerak, bajak edo gutxitzeak.*
 - g) *Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereiziz, bai eta narriaduragatiko harako galerak edo galeren atzera itzulketak sartuta dauden galera-irabazien kontuko partida edo partidak ere.*
 - h) *Amortizazioak, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereiziz.*
 - i) *Amaierako saldoa.*
2. *Datu hauei buruzko informazioa:*
 - a) *Aktiboen balio handiago bezala sartutako eraisteko, erretiratzeko edo birgaitzeko kostu estimatuak, balorazioa egiteko kontuan izan diren zirkunstantziak zehaztuz.*
 - b) *Elementu mota bakoitzerako erabilitako balio-bizitzak edo amortizazio-koefizienteak, eta erabilitako amortizazio-metodoak, epigrafe honetako elementu garrantzitsu bakoitzaren ekitaldiko amortizazioari eta amortizazio metatuari buruzko informazioa emanez.*
 - c) *Estimazioetan egindako aldaketen berri eman beharko da, uneko ekitaldian edo etorkizunekoetan eragin esanguratsua baldin badute, eta hondar-balioak, eraiste, erretiratze edo birgaitzeko kostu estimatuak, balio-bizitzak eta amortizazio-metodoak ukitzen badituzte.*
 - d) *Taldeko enpresengandik eta elkartuengandik eskuratutako ibilgetu materialeko inbertsioen ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.*
 - e) *Espainiako lurraldetik kanpora kokatutako ibilgetu materialeko inbertsioen ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.*

- f) *Ekitaldian kapitalizatutako finantza-gastuen zenbatekoa*, eta hori kalkulatzeko erabili diren irizpideak. Zehazki, ICACaren 2015eko apirilaren 14ko ekoizpen-kostua zehazteko irizpideak ezartzen dituen Ebazpenaren bederatzigarren arauaren 4 c) atalean araututako batez besteko interes-tasa haztatua adieraziko da, bai eta kanbio-diferentziekin jarraitutako irizpidea eta, kasuaren arabera, diferentzia horiek interes-tasaren doitze gisa ulertzeko zergatia ere.
- g) Ekitaldian zehar ibilgetu material zehatz batean narriaduragatik balioaren edo atzera itzultzearen balio-zuzenketa esanguratsuren bat kontabilizatu edo atzera itzuli bada, balio-zuzenketa bakoitzeko adierazi beharko da:
- Ibilgetu materialaren izaera.
 - Zenbatekoa, eta narriaduragatik galera kontabilizatzea eta/edo atzera itzultzea eraman duten gertaerak, gertakizunak eta zirkunstantziak.
 - Arrazoizko balioa (halakorik dagoenean, salmenta-kostuak kenduta) zehazteko erabilitako irizpidea.
 - Narriaturiko aktiboaren zenbateko berreskuragarria, eta adierazi aktiboaren aipatu zenbateko berreskuragarria aktiboaren arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta den edo erabilera-balioa denetz.
 - Zenbateko berreskuragarria arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta den kasuan, eta arrazoizko balioa ez bada merkatu aktibo batean kotizaturiko prezioetatik abiatuz lortu, enpresak informazio hauxe eman beharko du:
 - a) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatzeko erabilitako tekniken deskribapena. Balorazio-tekniketan aldaketarik egin bada, enpresak aldaketa horien berri eman beharko du, bai eta aldaketen zergatiarena ere.
 - b) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatzeko zuzendaritzak erabilitako hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Hipotesi gakoei sentikorrak zaie aktiboaren zenbateko berreskuragarria, uneko eta aurretiko balioespenetan erabilitako deskontu-tasa edo tasak hartzen dituzte euren baitan, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatu badira balio-eguneratuaren metodoa erabiliz.
 - Zenbateko berreskuragarria erabilera-balioa denean, uneko estimazioetan eta aurrekoetan eginiko deskontu-tasa edo tasak adieraziko dira, diru-fluxuen proiektzioak oinarritzeko erabili diren hipotesi gakoaren deskripzioa egingo da eta esango da nola zehaztu diren balioak, diru-fluxuen proiektzioak hartzen duen epealdia eta diru-fluxuen hazkunde-tasa, bosgarren urtetik aurrera.
- h) Aurreko letran esandako informazioan sartu ez diren gainerako narriaduragatik balioaren galera eta atzera-itzultze agregatuei dagokienez, zein ibilgetu mota nagusitan egin diren azalduko da, eta zein izan diren narriaduragatik egindako balio-zuzenketa horiek kontabilizatu eta atzera itzultzea behartu duten gertakizun eta zirkunstantzia nagusiak.
- i) Balio-narriadura izan duten edo galdu edo erretiratu diren ibilgetu materialeko elementuengatik *hirugarren batzuek eman dituzten eta ekitaldiko emaitzan sartu diren konpentsazioen zenbatekoari* buruzko informazioa emango da.
- j) Ibilgetu materiala unitate diru-sortzaile batean sartuta badago, narriaduragatik izandako galeraren informazioa emango da 7. oharreko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.
- k) Erabilitako zeharkako kostuak egozteko irizpideak eta, ohiz kanpoko arrazoi justifikatuen ondorioz irizpide horiek aldatzekotan, arrazoi horiek azaldu beharko dira, aldaketek urteko kontuengana duten eragin kuantitatiboa adieraziz.
- l) *Zuzenean ustiapenarekin lotuta ez dagoen ibilgetu materialaren ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.*
- m) *Erabat amortizatuta egon arren, oraindik erabiltzen diren ondasunen zenbatekoa eta ezaugarriak, bereizketa eginez eraikuntzen eta gainerako elementuen artean.*
- n) *Berre eta errebertsioei lotutako ondasunak, eta baita titulartasun-murrizketarik dagoen eta zenbatekoak diren ere.*
- o) *Ibilgetu materialarekin erlazionatuta hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak*, aktibo horien zenbatekoa ere adieraziz.
- p) Erosteko konpromiso irmoak eta finantzaketa-iturri aurreikusgarriak; baita saltzeko konpromiso irmoak ere.
- q) Ibilgetu materialeko ondasunetan eragina duten izaera substantiboko gainerako gorabeherak, hala nola: errentamenduak, aseguruak, auziak, enbargoak eta antzeko egoerak.
- r) Finantza-errentamenduak eta ibilgetu materialeko ondasunen gaineko antzeko beste eragiketa guztiak. Memoriako beste leku batzuetan eskatzen den bestelako informazioari kalterik egin gabe.
- s) *Ondasun higiezinetan, bereizita adieraziko dira eraikuntzaren eta lurraren balioa.*
- t) *Ekitaldian ibilgetu materialeko elementuak besterentzetik edo beste era batera xedatetik sortutako emaitzak.*

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M5.1 eta M5.2 orrialdeak) Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

6. ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Aurreko oharrean eskatutako informazioaz gain, ondasun higiezinetak inbertsio bezala sailkatutako ondasun higiezinak deskribatuko dira, informazio hau emanez:

1. Ondasun higiezinetak inbertsio motak eta emango zaien xedea.
2. *Inbertsio horietatik etorritako sarrerak eta ustiapen-gastuak*; bereizi egingo dira sarrerak sortzen dituzten eta ez dituzten inbertsioak.
3. Murrizketarik badago *ondasun higiezinetak inbertsioak egiteko, horietatik sortutako sarrerak edo besterentzean edo beste xedatzean lortutako baliabideak kobratzeko, murrizketa horien azalpena eta zenbatekoa*, eta
4. Ondasun higiezinetak inbertsioak eskuratzeko, eraikitze edo garatzeko edota konponketak, mantentzea eta hobekuntzak egiteko dauden kontratu-obligazioak.

● **GARRANTZITSUA: Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M6.1 eta M6.2 orrialdeak) Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.**

7. IBILGETU UKIEZINA

7.1. Orokorra

Merkataritza-fondoaren inguruko informazioari dagokionez izan ezik, horri buruz ohar honetako 2. idatz-zatian esaten den informazioa eman beharko baita, honako informazio hau sartu behar da:

1. *Epigrafe honetan sartutako balantzeko partida bakoitzak ekitaldian izan duen mugimenduaren analisia, bakoitzaren amortizazio metatua eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak, ondorengo azalduz:*
 - a) *Hasierako saldoa.*
 - b) *Sarrerak edo zuzkidurak, zehaztuz, barnean sortutakoak eta negozio-konbinazioen bidez eskuratutakoak eta diruaz bestelako ekarpenak.*
 - c) *Narriaduragatik egindako balio-zuzenketa atzera-itzultzea.*
 - d) *Beste partida batzuetako transferentzia edo traspasoenatik izandako gehikuntzak/gutxitzeak; bereziki, saltzeko mantendutako aktibo ez-korrentetara egindakoak.*
 - e) *Irteerak, bajak edo gutxitzeak.*
 - f) *Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereiziz, bai eta narriaduragatik harako galerak edo galeren atzera itzulketak sartuta dauden galera-irabazien kontuko partida edo partidak ere.*
 - g) *Amortizazioak, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereiziz.*
 - h) *Amaierako saldoa.*
2. Datu hauei buruzko informazioa:
 - a) *Berre eta errebertsioei lotutako aktiboak, eta baita titulartasun-murrizketarik dagoen eta zenbatekoak diren ere.*
 - b) *Elementu mota bakoitzerako erabilitako balio-bizitzak edo amortizazio-koefizienteak, eta erabilitako amortizazio-metodoak, epigrafe honetako elementu garrantzitsu bakoitzaren ekitaldiko amortizazioari eta amortizazio metatuari buruzko informazioa emanez.*
 - c) *Estimazioetan egindako aldaketen berri eman beharko da, uneko ekitaldian edo etorkizunekoetan eragin esanguratsua baldin badute, eta hondar-balioak, balio-bizitzak eta amortizazio-metodoak ukitzen badituzte.*
 - d) *Taldeko enpresengandik eta elkartuengandik eskuratutako ibilgetu materialeko inbertsioen ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.*
 - e) *Ibilgetu ukiezinako inbertsioen ezaugarriak, horien eskubideak Espainiako lurraldetik kanpora egikaritzeko modukoak direnean edo Espainiako lurraldetik kanpora kokatutako inbertsioekin erlazionatuta daudenean, inbertsio horien kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak adieraziz.*
 - f) *Ekitaldian kapitalizatutako finantza-gastuen zenbatekoa, eta hori kalkulatzeko erabili diren irizpideak. Zehazki, ICACaren 2015eko apirilaren 14ko ekoizpen-kostua zehazteko irizpideak ezartzen dituen Ebazpenaren bederatzigarren arauaren 4 c) atalean araututako batez besteko interes-tasa haztatua adieraziko da, bai eta kanbio-diferentziekin jarraitutako irizpidea eta, kasuaren arabera, diferentzia horiek interes-tasaren doitze gisa ulertzeko zergatia ere.*

- g) Ekitaldian zehar ibilgetu ukiezin material zehatz batean narriaduragatik balio-zuzenketa esanguratsuren bat kontabilizatu edo atzera itzuli bada, balio-zuzenketa bakoitzeko adierazi beharko da:
- Ibilgetu ukiezinaren izaera.
 - Zenbatekoa, eta narriaduragatiko galera kontabilizatzen edo/eta atzera itzultzen eraman duten gertaerak, gertakizunak eta zirkunstantziak.
 - Arrazoizko balioa (halakorik dagoenean, salmenta-kostuak kenduta) zehazteko erabilitako irizpidea, kasua bada.
 - Narriaturiko aktiboaren zenbateko berreskuragarria, eta adierazi aktiboaren aipatu zenbateko berreskuragarria aktiboaren arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta den edo erabilera-balioa denetz.
 - Zenbateko berreskuragarria arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta den kasuan, eta arrazoizko balioa ez bada merkatu aktibo batean kotizaturiko prezioetatik abiatuz lortu, enpresak informazio hauxe eman beharko du:
 - a) Arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta kalkulatzeko erabilitako balorazio-tekniken deskribapena. Balorazio-tekniketan aldaketarik egin bada, enpresak aipatu aldaketen berri eman beharko du, bai eta haiek egiteko arrazoiak ere.
 - b) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatzeko zuzendaritzak erabilitako hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Hipotesi gakoek sentikorrak zaie aktiboaren zenbateko berreskuragarria, uneko eta aurretiko balioespenetan erabilitako deskontu-tasa edo tasak hartzen dituzte euren baitan, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatu badira balio-eguneratuaren metodoa erabiliz.
 - Zenbateko berreskuragarria erabilera-balioa denean, uneko estimazioetan eta aurrekoetan eginiko deskontu-tasa edo tasak adieraziko dira, diru-fluxuen proiektzioak oinarritzeko erabili diren hipotesi gakoek deskribatutako egingo da eta esango da nola zehaztu diren balioak, diru-fluxuen proiektzioak hartzen duen epealdia eta diru-fluxuen hazkunde-tasa, bosgarren urtetik aurrera.
- h) Aurreko letran esandako informazioan sartu ez diren gainerako narriaduraren galera eta atzera-itzultze agregatuak dagokienez, zein ibilgetu mota nagusitan egin diren azalduko da, eta zein izan diren balioaren narriaduragatik egindako balio-zuzenketa horiek kontabilizatu eta atzera itzultzen behartu duten gertakizunak eta zirkunstantziak.
- i) Ibilgetu ukiezinaren unitate diru-sortzaile batean sartuta badago, narriaduragatik izandako galeraren informazioa emango da ohar honetako 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.
- j) *Zuzenean ustiapenarekin lotuta ez dagoen ibilgetu ukiezinaren ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.*
- k) Erabilitako zeharkako kostuak egozteko irizpideak eta, ohiz kanpoko arrazoi justifikatuen ondorioz irizpide horiek aldatzekotan, arrazoi horiek azaldu beharko dira, aldaketek urteko kontuengana duten eragin kuantitatiboa adieraziz.
- l) *Erabat amortizatuta egon arren, oraindik erabiltzen diren ibilgetu ukiezinaren zenbatekoa eta ezaugarriak.*
- m) *Ibilgetu materialarekin erlazionatuta hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak, aktibo horien zenbatekoa ere adieraziz.*
- n) Erostea konpromiso irmoak eta finantza-keta-iturri aurreikusgarriak; baita saltzeko konpromiso irmoak ere.
- o) *Ekitaldian ibilgetu ukiezinako elementuak besterentzetik edo beste era batera xedatzen sortutako emaitzak.*
- p) *Ekitaldian zehar gastu bezala kontabilizatu diren ikerketa eta garapenerako ordainketen zenbateko agregatua, eta ikerketa eta garapenerako gastuen kapitalizazioari eusteko dauden zirkunstantzien justifikazioa.*
- q) *Modu fidagarrian zehaztu daitekeen bizitza erabilgarriko ibilgetuak zehaztuko dira, honako hauek adieraziz: zenbatekoa, izaera eta haien bizitza baliagarriaren estimazioaren fidagarritasun-falta eragiten duten inguruabarrak.*
- r) Ibilgetu ukiezinaren eragina duten izaera substantiboko gainerako gorabeherak, hala nola: errentamenduak, aseguruak, auziak, enbargoak eta antzeko egoerak.

7.2. Merkataritza-fondoa

Informazio hau sartuko da idatz-zati honetan:

1. *Ekitaldian egindako negozio-konbinazio bakoitzeko, merkataritza-fondoaren zifra adieraziko da, eta negozio-konbinazio bakoitzari dagokiona banakatuta aurkeztuko da.*

Banaka garrantzi erlatibo handirik ez duten negozio-konbinazioak direnean, aurreko informazio hori modu agregatuan emango da.

Urteko kontuen itxiera-daturen eta formulazio-daturen bitartean egindako negozio-konbinazioei buruzko informazioa ere azaldu beharko da, ahal den guztietan behintzat; ezin denean, informazio hori zergatik ezin den eman azaltzeko arrazoiak emango dira.

Ekitaldia burutzean, negozio-konbinazioen batean hartutako merkataritza-funtsaren zatiren bat ez bazaio ezein unitate diru-sortzaileri banatu, azaldu beharko dira bai banatu gabeko merkataritza-funtsaren zenbatekoa, eta bai zenbateko soberakin hori ez banatzeko arrazoiak ere.

2. *Enpresak kontziliatu egingo ditu merkataritza-fondoak ekitaldiaren hasieran eta bukaeran dituen zenbatekoak, bereizita azalduz:*

- a) *Ekitaldi-hasieran funtsak zuen balio gordina, egindako amortizazioak eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.*
- b) *Ekitaldian kontabilizatutako merkataritza-fondo gehigarria, saltzeko mantendutakoen artean sailkatutako elementu-multzo besterengarri bati dagokion merkataritza-fondoa bereiziz, erregistratzeko eta baloratzeko arauen arabera. Era berean, saltzeko mantendutako elementu-multzo besterengarrien artean sailkatuta ez zegoen eta ekitaldian zehar baja eman zaion merkataritza-fondoari buruzko informazioa ere emango da.*
- c) *Ekitaldian zehar narriaduragatik kontabilizatutako balio-zuzenketak, bai eta narriadura-galerok sartuta dauden galera-irabazien kontuko partida edo partidak ere.*
- d) *Liburu-balioan ekitaldian zehar izan diren gainerako aldaketa guztiak, eta.*
- e) *Ekitaldi-amaieran merkataritza-funtsak duen balio gordina, egindako amortizazioak eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.*

3. Merkataritza-funtsa erregistratzera eraman duten faktoreen deskribapena eta, eskudirua sortzen duen unitate bakoitzari egotzitako merkataritza-funtsaren eta bestelako ibilgetu ukiezinen justifikazioa eta zenbatekoa.

Batik bat, merkataritza-funtsaren bizitza baliagarria zehazteko egindako estimazioen eta erabilitako amortizazio-metodoaren berri emango da.

4. Merkataritza-fondoak narriaduragatik izaten duen galera esanguratsu bakoitzeko, informazio hau emango da:

- a) Merkataritza-fondoa eta beste ibilgetu ukiezin edo material batzuk barne hartzen dituen unitate diru-sortzailearen deskripzioa, eta unitate diru-sortzailea identifikatzeko nola multzokatu diren elementuak, multzokatzeko modua aldatu egin bada aurreko ekitaldietatik.
- b) Zenbatekoa, eta narriaduragatik balio-zuzenketa kontabilizatzaera eraman duten gertaerak, gertakizunak eta zirkunstantziak.
- c) Arrazoizko balioa halakorik dagoenean, salmenta-kostuak kenduta zehazteko erabilitako irizpidea, eta.
- d) Narriatutako aktiboaren zenbateko berreskuragarria, adieraziz aktiboaren aipatu zenbateko berreskuragarria arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak edo erabilera-balioa denetz.
- e) Zenbateko berreskuragarria arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta den kasuan, eta arrazoizko balioa ez bada merkatu aktibo batean kotizaturiko prezioetatik abiatuz lortu, enpresak informazio hauxe eman beharko du:
 - a) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatzeko erabilitako tekniken deskribapena. Balorazio-tekniketan aldaketarik egin bada, enpresak aldaketa horien berri eman beharko du, bai eta aldaketon zergatiarena ere.
 - b) Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatzeko zuzendaritzak erabilitako hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Hipotesi gakoei sentikorren zaie aktiboaren zenbateko berreskuragarria, uneko eta aurretiko balioespenetan erabilitako deskontu-tasa edo tasak hartzen dituzte euren baitan, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak kalkulatu badira balio-eguneratuaren metodoa erabiliz.
- f) Zenbateko berreskuragarria erabilera-balioa denean, uneko estimazioetan eta aurrekoetan eginiko deskontu-tasa edo tasak adieraziko dira, diru-fluxuen proiektzioak oinarritzeko erabili diren hipotesi gakoaren deskripzioa egingo da eta esango da nola zehaztu diren balioak, diru-fluxuen proiektzioak hartzen duen epealdia eta diru-fluxuen hazkunde-tasa, bosgarren urtetik aurrera.

5. Material ibilgetu ukiezinari buruzko idatz-zatietan esandakoarekin bat etorriaz, balio-narriadura kalkulatzeko aldera elementuok merkataritza-funtsik esleituta ez duten unitate diru-sortzaile batean sartzen badira, 4. idatz-zatian eskaturiko informazioa azaltzeaz gain, ekitaldian zehar diru-sortzaile unitate baterako aitortutako balio-narriaduragatik galera edo lehengoratzeko esanguratsu bakoitzeko argitasun hauexek ere emango dira:

- a) Unitate diru-sortzailearen deskribapena (adibidez produktu-lerro batez ari bagara, fabrika batez, negozio eragiketa batez edo geografia-gune batez).
- b) Aktibo mota bakoitzeko balioaren narriadura-galera aitortuaren edo atzera itzuliaren zenbatekoa.
- c) Unitate diru-sortzailea identifikatzeko aktiboen agregazioa aldatu bada unitate diru-sortzailearen zenbateko berreskuragarriaren aurreko estimaziotik aldendu bada (balego), aurreko eta uneko taldekatzea eramateko eraren deskribapena, bai eta gagozkion unitatea identifikatzeko modua aldatzeko arrazoiarena ere.

6. Aurreko idatz-zatietan esandako informazioan sartu ez diren gainerako narriaduragatiko galera eta atzera itzultze agregatuei dagokienez, balioaren narriaduragatiko galera eta atzera itzultzeek jotako aktibo mota nagusiak eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa horiek kontabilizatzeari ekarri duten gertakizun eta zirkunstantzia nagusiak.
 7. Eskudirua sortzen duen unitate bakoitzean, unitate horretara banatu diren merkataritza-funtseko liburu-etako zenbatekoa adierazgarria bada merkataritza-funtseko edo enpresaren balio-bizitza zehaztugabeko aktibo ukiezinetako liburu guztietako zenbatekoarekin alderatuta, honako hauek jakinarazi beharko dira:
 - a) Unitateari banatutako merkataritza-funtseko liburu-zenbatekoa.
 - b) Unitatearen zenbateko berreskuragarria zehazteko oinarria (hau da, erabilera-balioa edo arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta).
 - c) Unitatearen zenbateko berreskuragarria erabilera-balioan oinarriturik balego.
 - Aurreikuspen edo aurrekontu berriek besarkatzen duten aldirako, zuzendaritzak diru-fluxuen proiektzioak oinarritzeko erabili dituen hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Hipotesi gakoak sentikorrean zaie unitateen zenbateko berreskuragarria.
 - Hipotesi gako bakoitzari esleitutako balioa edo balioak zehazteko zuzendaritzak erabilitako ikuspuntuaren deskribapena, bai eta aipatu balioek iragan eskarmentua islatzen ote duten, edo, kasurako, kanpoko informazio-iturriekin batera dabilzan ere, eta halaxe ez balitz, iragan eskarmentutik edo kanpoko informazio-iturrietatik zertan eta zergatik aldentzen diren.
 - Zuzendaritzak onetsitako aurreikuspen edo aurrekontuetan oinarrituriko diru-fluxuak proiektatu dituen aldia, eta bost urtetik gorako aldia erabiltzen bada, horren aldi luzea zuzentzeko arrazoiak azalpena.
 - Aurrekontu edo aurreikuspen berriek besarkatutako epealditik haragokora diru-fluxuen proiektzioak luzatzeko erabilitako hazkunde-tasa, eta era berean, unitateak ekiten dion merkaturako, edo enpresak diharduen herrialde edo herrialdeetarako, edo produktu edo industrietarako batez besteko hazkunde-tasa gainditzeko duen hazkunde-tasa erabiliko balitz, horren justifikazioa pertinentea.
 - Diru-fluxuen proiektzioei aplikaturiko deskontu-tasa edo tasak.
 - d) Unitatearen zenbateko eskuragarria arrazoizko balioan salmenta-kostuak kenduta oinarriturik balego, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak zehazteko erabilitako metodologia. Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak ez balitz zehaztu unitaterako merkatu-prezio behargarriaren bat erabilia, informazio haxe ere eman beharko da:
 - Zuzendaritzak arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta zehazteko erabilitako hipotesi gako bakoitzaren deskribapena. Hipotesi gakoak sentikorrean zaie unitateen zenbateko berreskuragarria.
 - Hipotesi gako bakoitzeko esleitu zaion edo zaizkion balioak zehazteko zuzendaritzak hartutako ikuspuntuaren deskribapena, halaber, balioak aurretiko eskarmentua islatzen dutenetz edo, bestela, kanpoko informazio iturriekin bat datozen eta, halaxe ez balitz, nondik eta nora aldentzen diren aurreko eskarmentutik edo kanpoko informazio iturrietatik.

Arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak diru-fluxu proiektzioa deskontatuak erabilia zehaztuko balitz, horri buruzko informazioa ere argitu beharko litzateke:

 - Zuzendaritzak diru-fluxuak proiektatu dituen epealdia.
 - Diru-fluxuen proiektzioak luzatzeko erabili den hazkunde-tasa.
 - Diru-fluxuen proiektzioei aplikaturiko deskontu-tasa edo tasak.
 - e) Zuzendaritzak unitatearen zenbateko berreskuragarria oinarritu duen hipotesi gako batean arrazoizko aldaketa posibleren batek balekar unitatearen liburu-balioko zenbatekoak bere zenbateko berreskuragarria gaindituko lukeela:
 - Unitatearen zenbateko berreskuragarriak zenbatean gainezkatzen duen liburu-balioko zenbatekoa.
 - Hipotesi gako edo gakoak esleituriko balioa.
 - Hipotesi gakoari esleitutako balio edo balioak zenbatgarrenen zenbatekoan aldatu behar diren, zenbateko berreskuragarria neurtzeko erabilitako beste aldagarrien gainetik aldaketa horren ondorio liratekeen eragin guztiak zenbateko berreskuragarriari gehitu eta gero, unitatearen zenbateko berreskuragarri hori bera liburu-zenbatekoarekin bat berdintzeko.
- Bestetara balitz, beren beregi azaldu beharko da ez dagoela balio narriaduraren erregistroa lekarkeen arrazoizko aldaketa posiblerik.
8. Merkataritza-funtseko liburu-etako zenbatekoa eskudirua sortzen duten unitate batzuen artean banatu bada, eta, ondorioz, unitate bakoitzari dagokion zenbatekoa ez bada adierazgarria merkataritza-funtseko edo enpresaren balio-bizitza zehaztugabeko aktibo

ukiezinetakoz liburu guztietako zenbatekoarekin alderatuta, horren berri eman beharko da, merkataritza-funtseko liburuetakoz zenbatekoaren guztizkotik unitate bakoitzari dagokion zehaztuta.

Gainera, unitate horietako baten zenbateko berreskuragarria hipotesi giltzarri berdinetan oinarritzen bada, eta unitateen artean banatutako merkataritza-funtseko edo enpresaren balio-bizitza zehaztugabeko aktibo ukiezinetakoz liburuaren zenbatekoen batura adierazgarria bada merkataritza-funtseko liburuetakoz zenbatekoaren guztizkoaren aldean, horren berri eman beharko da, honako hauek gaineratuta:

- a) Unitate haien artean banatutako liburu-balioetako merkataritza-funtsearen zenbateko guztizkoa.
- b) Hipotesi gakoaren deskribapena.
- c) Hipotesi gako bakoitzari esleitutako balioa edo balioak zehazteko zuzendaritzak erabilitako ikuspuntuaren deskribapena, bai eta aipatu balioek iragan eskarmentua islatzen ote duten, edo, kasurako, kanpoko informazio-iturriekin batera dabilzan ere, eta halaxe ez balitz, iragan eskarmentutik edo kanpoko informazio-iturrietatik zertan eta zergatik aldentzen diren.
- d) Zuzendaritzak unitatearen zenbateko berreskuragarria oinarritu duen hipotesi gako batean arrazoiko aldaketa posibleren batek balekar unitatearen liburu-balioko zenbatekoak bere zenbateko berreskuragarria gaindituko lukeela:
 - Unitatearen zenbateko berreskuragarriak zenbatean gainezkatzen duen liburu-balioko zenbatekoa.
 - Hipotesi gako edo gakoari esleituriko balioa.
 - Hipotesi gakoari esleitutako balioa edo balioak zenbatean aldatu behar diren, behin, zenbateko berreskuragarria neurtzeko erabilitako bestelako aldagaien gainetik, aldaketa horren ondorio liratekeen eragin horiek guztiak balio berreskuragarriari gehitu eta gero, unitatearen aipatu zenbateko berreskuragarriak bat egin dezan bere liburu-balioekin.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M7.1-M7.4 orrialdeak) Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

8. ERRENTAMENDUAK ETA ANTZEKO ERAGIKETAK

Jarraian ezarritakoaren arabera errentamendu-eragiketarako eman beharreko informazio bera eman beharko da enpresak antzeko beste eragiketa batzuk egiten dituenean ere.

8.1. Finantza-errentamenduak

1. Errentatzaileek informazio hau emango dute:

- a) *Finantza-errentamendu bezala sailkatutako errentamenduetan (erosteko aukera adieraziz, horrelakorik dagoenean) egindako inbertsio gordin totalaren eta ekitaldi-itxierako balio eguneratuaren arteko kontziliazioa. Errentamendu horiengatik ondoren zehazten diren epeetan kobratuko diren zenbateko minimoei eta horien balio eguneratuari buruzko informazioa emango da:*
 - *Urtebete arte.*
 - *Urtebete eta bost urteren artean.*
 - *Bost urtetik gora.*
- b) *Finantza-errentamenduko kontratuen zenbateko osoaren kontziliazioa, ekitaldiaren hasieran eta amaieran.*
- c) *Finantza-errentamenduko hitzarmen esanguratsuen deskripzio orokorra.*
- d) *Sortu gabeko sarrera finantzarioak eta eragiketaren osagai finantzarioa banatzeko irizpidea.*
- e) *Ekitaldiko sarrera bezala kontabilizatutako kuota kontingenteen zenbatekoa.*
- f) *Errentamendutik kobratzeko dauden kopuruen kaudimengabezia estaltzeko egiten den narriaduragatiko balio-zuzenketa.*

2. Errentariak informazio hau emango dute:

- a) *Aktibo mota bakoitzeko, aktiboaren hasierako kontabilitate-balioa, balio hori zeri dagokion adieraziz, aktiboaren arrazoizko balioari edo, bestela, egin beharreko gutxieneko ordainketen balio eguneratuari.*
- b) *Errentamenduagatik etorkizunean egin beharko diren ordainketa minimoen zenbateko osoaren (erosteko aukera adieraziz, horrelakorik dagoenean) eta ekitaldi-itxierako balio eguneratuaren arteko kontziliazioa. Errentamendu horiengatik ondoren*

zehazten diren epeetan ordaindu beharko diren zenbateko minimoei eta horien balio eguneratuari buruzko informazioa emango da:

- Urtebete arte.*
- Urtebete eta bost urteren artean.*
- Bost urtetik gora.*

- c) *Ekitaldiko gastu bezala kontabilizatutako kuota kontingenteen zenbatekoa.*
- d) *Azpierrentamendu finantzario ezereztu ezinengatik ekitaldi-itxieran jasotzea espero diren etorkizuneko ordainketa minimoen guztizko zenbatekoa.*
- e) Finantza-errentamenduko akordio esanguratsuen deskripzio orokorra, informazio hau emanez:
 - Hitzartutako edozein kuota kontingente zehazteko oinarriak.*
 - Zer kontratu dauden eta, halakorik dagoenean, kontratuak berritzeko epeak; gainera, erosteko aukerak eta prezioak eguneratzeko edo mailakatzeko klausulak, eta*
 - Enpresari errentamendu-kontratuen indarrez ezarri zaizkion murrizketak, hala nola, dibidenduen banaketari buruzkoak eta zor gehiago egiteari edo errentamendu-kontratu berriak egiteari buruzkoak.*
- f) *Kontratu hauetatik sortzen diren aktiboen informazioa memorian eman beharko da, izaera horretako aktiboei dagokienaren arabera, aurreko oharretan ibilgetu materialari, ondasun higiezinak inbertsioei eta ibilgetu ukiezinari buruz ezarritakoa betez.*

8.2. Errentamendu operatiboak

1. Errentatzaileek informazio hau emango dute:

- a) *Errentamendu operatibo ezereztu ezinengatik etorkizunean egingo diren kobrantza minimoen zenbateko osoa eta, gainera, epe hauei dagozkien zenbatekoak:*
 - Urtebete arte.*
 - Urtebete eta bost urteren artean.*
 - Bost urtetik gora.*
- b) *Errentan emandako ondasun eta errentamendu-akordio esanguratsuen deskripzio orokorra.*
- c) *Ekitaldiko sarrera bezala kontabilizatutako kuota kontingenteen zenbatekoa.*

2. Errentariak informazio hau emango dute:

- a) *Errentamendu operatibo ezereztu ezinengatik etorkizunean egingo diren ordainketa minimoen zenbateko osoa eta, gainera, epe hauei dagozkien zenbatekoak:*
 - Urtebete artean.*
 - Urtebete eta bost urteren artean.*
 - Bost urtetik gora.*
- b) *Azpierrentamendu operatibo ezereztu ezinengatik ekitaldi-itxieran jasotzea espero diren etorkizuneko ordainketa minimoen guztizko zenbatekoa.*
- c) *Ekitaldiko gastu eta sarrera bezala kontabilizatutako errentamendu eta azpierrementamendu operatiboen kuotak, hauen arteko bereizketa eginez: errentamendu-ordainketa minimoak, kuota kontingenteak eta azpierrementamendu-kuotak.*
- d) *Errentamendu-akordio esanguratsuen deskripzio orokorra, informazio hau emanez:*
 - Hitzartutako edozein kuota kontingente zehazteko oinarriak.*
 - Zer kontratu dauden eta, halakorik dagoenean, kontratuak berritzeko epeak; gainera, erosteko aukerak eta prezioak eguneratzeko edo mailakatzeko klausulak, eta*

- Enpresari errentamendu-kontratuen indarrez ezarri zaizkion murrizketak, hala nola, dibidenduen banaketari buruzkoak eta zor gehiago egiteari edo errentamendu-kontratu berriak egiteari buruzkoak.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M8.1 eta M8.2 orrialdeak) Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

9. FINANTZA-TRESNAK

9.1. Kontsiderazio orokorrak eta helburua

Hurrengo apartatuetan eskatzen den informazioa, erregistratzeko eta baloratzeko bederatzigarren arauaren esparruan sartzen diren tresna finantzarioetan aplikatuko da.

Ohar honen helburua da enpresei eskatzea erabiltzaileei honako hauek ebaluatzeko aukera emango dien informazioa sartzeko urteko kontuetan:

- Egoera finantzarioan eta enpresaren emaitzetan tresna finantzarioek duten garrantzia, eta
- Jakinarazten den aldian erakundeak izan dituen eta enpresak ekitaldia ixteko unean dituen tresna finantzarioetatik eratorritako arriskuen izaera eta irismena, bai eta arrisku horiek kudeatzeko modua ere.

Memorian aurkezteari dagokionez, tresna finantzario moten arabera eman beharko da informazio jakin bat. Erregistratzeko eta baloratzeko bederatzigarren arauan ezarritako tresna finantzarioen izaera eta kategoriak kontuan hartuz definituko dira mota horiek. Enpresak definitutako motei buruzko informazioa eman beharko da.

9.2. Enpresaren egoera finantzarioan eta emaitzetan tresna finantzarioek duten garrantziari buruzko informazioa

9.2.1. Balantzeari buruzko informazioa

- Aktibo finantzario eta pasibo finantzarioen kategoriak

Erregistratzeko eta baloratzeko bederatzigarren arauan zehaztutako aktibo finantzario eta pasibo finantzarioen kategoria bakoitzaren kontabilitate-balioa adieraziko da, egitura honen arabera:

- 1) Aktibo finantzarioak, taldeko enpresen, talde anitzeko enpresen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak izan ezik.

KLASEAK KATEGORIAK	EPE LUZEKO FINANTZA-TRESNAK						EPE LABURREKO FINANTZA-TRESNAK						GUZTIRA	
	ONDARE TRESNAK		ZORRA ADIERAZTEN DUTENBALOREAK		HARTZEKOAK DERIBATUAK BESTELAKOAK		ONDARE TRESNAK		ZORRA ADIERAZTEN DUTENBALOREAK		HARTZEKOAK DERIBATUAK BESTELAKOAK			
	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.
<i>Galdututako irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako aktiboak</i> – <i>Negoiazio-zorrotz</i> – <i>Izendatuak</i> – <i>Beste batzuk</i>														
<i>Kostu amortizatutako finantza-aktiboak</i>														
<i>Kostuko finantza-aktiboak</i>														
<i>Arrazoizko balioaren arabera aktiboak, aldatutako ondare garbian</i>														
<i>Estaldurako deribatuak</i>														
Guztira														

a.2) Pasibo finantzarioak

KLASEAK KATEGORIAK	EPE LUZEKO FINANTZA-TRESNAK						EPE LABURREKO FINANTZA-TRESNAK						GUZTIRA	
	KREDITU-ERAKUNDEEKO ZORRAK.		OBLIGAZIOAK ETA BESTELAKO BALORE NEGOZIAGARRIAK		DERIBATUAK BESTELAKOAK		KREDITU-ERAKUNDEEKO ZORRAK.		OBLIGAZIOAK ETA BESTELAKO BALORE NEGOZIAGARRIAK		DERIBATUAK BESTELAKOAK			
	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.	x ek.	x-1 ek.
Kostu amortizatuko finantza-pasiboak														
Galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako pasiboak - Negoiazio-zorria - Izendatuak - Beste batzuk														
Estaldurako deribatuak														
Guztira														

b) Galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak

Arrazoizko balioan izandako aldaketaren zenbatekoaren berri emango da, ekitaldian izan duena eta izendatu zenetik metatutakoa, eta kalkulua egiteko erabili den metodoa adieraziko da.

Estaldura-tresna bezala kalifikatuta ez dauden finantza-tresna deribatuei dagokienez, tresnen izaerari buruzko informazioa emango da, eta, halaber, etorkizuneko diru-fluxuen zenbatekoan, egutegian edo ziurtasunean eragina izan dezaketen baldintzei buruzkoa.

Enpresak aktibo finantzarioak edo pasibo finantzarioak izendatu baditu galera-irabazien kontuan aldaketak izanda arrazoizko balioan baloratzeko, aukera horren erabileraren berri emango du eta erregistratzeko eta baloratzeko arauan eskatzen diren baldintzak betetzen direla zehaztu.

Enpresak galera-irabazien kontuan aldaketak izanda arrazoizko balioaren aukera erabiliz pasibo finantzario bat izendatu badu, honako hauei buruzko informazioa emango da:

1. Aldaketaren zenbatekoa, aldian zehar eta modu metatuan, kreditu-arriskuko aldaketei egotz dakiekeen pasiboaren arrazoizko balioan.
2. Pasiboaren liburu-tako zenbatekoaren eta enpresak muga-eguna iristean ordaindu beharko lukeen zenbatekoaren arteko diferentzia.

c) Birsailkapenak

Erregistratzeko eta balioesteko bederatzigarren arauan ezarritakoaren arabera aktibo finantzario bat birsailkatu bada, birsailkapen horren zenbatekoei buruzko informazioa emango da aktibo finantzarioen kategoria bakoitzeko, eta horren justifikazioa erantsiko da. Zehazki, aktibo finantzarioen kudeaketan izandako aldaketaren azalpen zehatza emango da, eta enpresaren urteko kontuetan izandako ondorearen deskribapen kualitatiboa egingo da.

d) Aktibo eta pasibo finantzarioen konpentsazioa

Enpresak informazioa sartu beharko du urteko kontuen erabiltzaileek uler dezaten urteko kontuen 6. balantzea egiteko arauaren 2. apartatuan aipatzen diren konpentsazio-akordioek zer ondore edo ondore potentzial izan dezaketen beren egoera finantzarioan.

Helburu hori betetzeko, enpresak honako informazio hau sartuko du, bereiz, kontabilizatutako aktibo finantzarioei dagokienez eta pasibo finantzarioei dagokienez:

1. Aktibo finantzario aintzatetsien eta pasibo finantzario aintzatetsien zenbateko gordinak.
2. Aipatutako 2. apartatuko irizpideen arabera konpentsatuta dauden zenbatekoak.
3. Balantzean aurkeztutako zenbateko garbiak.

e) Bermetan emandako eta hartutako aktiboak

Bermetan emandako aktibo finantzarioen liburu-balioa adieraziko da, zein motatakoak diren eta berme-eragiketa horrekin lotutako baldintzak eta epeak azalduz, gainera.

Enpresak beste hirugarren batengandik bermetan hartutako aktiboak, finantzarioak edo bestelakoak, askatasunez xeda baditzake ez-ordaintzerik gertatu ez arren, informazio hau eman beharko du:

1. *Bermetan hartutako aktiboaren arrazoizko balioa.*
2. *Bermetan hartutako eta enpresak xedatutako edozein aktiboren arrazoizko balioa, eta enpresak aktiboa itzultzeko obligaziorik duen edo ez, eta*
3. *Enpresari dagokionez, bermetan hartutako aktiboak erabiltzeko epeak eta baldintzak.*

f) *Deribatu inplizitu ugariko tresna finantzario konposatuak*

Enpresa batek pasibo-osagai bat eta ondare-osagai bat dituen tresna bat jaulki duenean, eta tresnak hainbat deribatu inplizitu dituen eta haien balioak elkarren mendeak direnean (adibidez, erreskate-aukera batekin bihur daitekeen zor-tresna bat), ezaugarri horien berri emango du.

g) *Kreditu-arriskuagatik sortutako balio-narriaduragatik egindako zuzenketak*

Aktibo finantzarioen mota bakoitzari buruz, kreditu-arriskuagatik sortutako narriaduraren ondorioz izandako galerak jasotzen dituzten zuzenketa-kontuen mugimenduen analisia aurkeztuko da.

h) *Ez-ordaintzea eta kontratu-baldintzak ez betetzea*

Ekitaldi-itxieran oraindik ordaindu gabe dauden maileguei buruz, adieraziko dira:

1. *Ekitaldian zehar printzipala edo interesak ordaindu gabe utzi badira, ez-ordaintzearen xehetasunak.*
2. *Ez-ordaintzeren bat izan duten maileguen kontabilitate-balioa ekitaldiaren itxiera-datan, eta*
3. *Ez-ordaintzea konpondu den edo maileguaren baldintzak birnegoziatu diren, urteko kontuak formulatu aurretik.*

Ekitaldian zehar kontratuko baldintzaren bat bete ez bada (ez-ordaintzeaz bestelakoa), eta gertaera horrek mailegu-emailari ordainketa aurreratua erreklamatzeko eskubidea ematen badio, lehen esandakoaren antzeko informazioa emango da, salbu eta ez-betetze hori konpondu denean edo baldintzak ekitaldi-itxiera baino lehen birnegoziatu direnean.

i) *Ezaugarri bereziko zorrak*

Enpresak ezaugarri bereziko zorrak dituenen, zorren izaerari, zenbatekoei eta ezaugarriei buruzko informazioa emango du, taldeko enprekin edo elkartuekin egindako zorrak bereiziz, behar denean.

9.2.2. Galdu-irabazien kontuari eta ondare garbiari buruzko informazioa

Adierazi beharko dira:

1. *Erregistratzeko eta baloratzeko bederatzigarren arauan definitutako finantza-tresnen kategoria bakoitzetik sortutako galera edo irabazi garbiak.*
2. *Galera-irabazien kontuan kontabilizatutako irabazia edo galera, kostu amortizatuan neurtutako aktibo finantzarioen bajatik sortzen dena, aktibo finantzario horien bajatik sortutako irabaziak eta galerak bereizita erakutsita. Informazio horretan sartuko dira aktibo finantzario horiei kontuetan baja emateko arrazoiak.*
3. *Sarrera eta gastu finantzarioak, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz kalkulatu.*

9.2.3. Memorian sartu beharreko bestelako informazioa

9.2.3.1. Estalduren kontabilitatea

Estalduren kontabilitateari buruz sartu beharreko informazioaren helburua da urteko kontuen erabiltzaileari honako hauei buruzko informazio garrantzitsua eta fidagarria ematea:

1. *Enpresaren arriskua kudeatzeko estrategia eta arriskua kudeatzeko estrategia hori aplikatzen den modua,*
2. *Enpresaren estaldura-jarduerak etorkizuneko diru-fluxuen zenbatekoari, egutegiari eta ziurgabetasunari nola eragin diezaieketen, eta*

3. Estaldura-kontabilitateak balantzean, galera-irabazien kontuan eta ondare garbiaren aldaketen egoeran izan duen eragina.

Helburu hori betetzeko enpresak egiten dituen estaldura-eragiketen azalpen xehea eman beharko du, *estaldura moten arabera sailkatuta* eta garbi zehaztuz estaldura-tresna bezala izendatutako finantza-tresnak *eta horien ekitaldi-itxierako arrazoizko balioak*, eta estalitako arriskuen izaera. Bereziki, finantza-tresnak erregistratzeko eta baloratzeko arauan ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatu behar du.

Bederatzigarren erregistratzeko eta baloratzeko arauan eskatutako baldintzak betetzen direla justifikatu beharko du enpresak, eta, bereziki, honako hauen deskribapena jaso beharko du:

1. Nola zehazten duen estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren arteko erlazio ekonomikoa estalduraren eraginkortasuna ebaluatzeko, eta
2. Estaldura-ratioa nola ezartzen den eta estalduraren eraginkortasunik ezaren jatorria zein den.

Horrez gainera, diru-fluxuen estalduretan, informazio hau ere emango du enpresak:

1. Diru-fluxuak zein ekitalditan gertatuko direla espero den eta zein ekitalditako galera-irabazien kontuetan izango duten eragina.
2. *Ekitaldian zehar ondare garbian kontabilizatutako zenbatekoa, eta ondare garbitik galdu-irabazien kontura egotzi den zenbatekoa*, galdu-irabazien kontuko partida bakoitzean sartutako zenbatekoak xehatuz.
3. *Ekitaldian zehar ondare garbitik kendu eta aktibo edo pasibo ez-finantzario baten hasierako balorazioan eskuratzeko-prezioan edo liburu-balioan sartu den zenbatekoa, estalitako partida probabilitate handiko transakzio aurreikusia denean, eta*
4. Aurrez estaldura-kontabilitatea aplikatu zaien baina ez direla gertatuko espero diren transakzio aurreikusi guztiak.

Arrazoizko balioen estalduretan, gainera, ezagutzera eman beharko dira estaldura-tresnaren galdu-irabaziak, eta estalitako partidan estalitako arriskuarengatik izan diren galdu-irabaziak.

Era berean, diru-fluxuen estaldurari eta atzerriko negozioetan egindako inbertsio garbiaren estaldurari buruz galdu-irabazien kontuan erregistratutako inefikaziaren zenbatekoa adieraziko da.

9.2.3.2. Arrazoizko balioa

a) Informazioaren helburua

Arrazoizko balioaren arabera baloratutako tresna finantzarioen kasuan, honako hau jakinaraziko da:

1. Hasierako aintzatespenaren ondoren balorazio horiek garatzeko erabilitako balorazio-teknikak eta aldagaiak;
2. mailako aldagai esanguratsuak erabiltzen dituzten balorazio errepikariek galera-irabazien kontuan edo aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orrian duten eragina.

b) Helburu hori lortzeko, enpresak, besteak beste, alderdi hauen berri eman beharko du:

1. *Tresna finantzario mota bakoitzaren arrazoizko balioa azalduko da, eta dagokion liburu-balioarekin konparatuko.* Ez da arrazoizko balioa azaldu beharrik izango kasu hauetan:

- 1.º Liburu-balioa arrazoizko balioaren hurbilketa onargarria denean; adibidez, eragiketa komertzialetako epe laburreko hartzeak eta zorrak direnean.
- 2.º Merkatu aktiboan kotizatzen ez duten ondare-tresnak eta horietatik sortutako deribatuak direnean eta, erregistratzeko eta baloratzeko bederatzigarren arauan ezarritakoaren arabera, kostuan baloratzen direnean.

Kasu horretan, enpresak egoera hori azalduko du, eta finantza-tresnaren deskripzioa, liburu-balioa eta arrazoizko balioa fidagarritasunez kalkulatzea eragozten duten arrazoien esplikazioa emango ditu. Horrez gainera, enpresak finantza-tresna besterentzeko asmorik duen edo ez, eta noiz, azalduko dira.

Finantza-tresnari ekitaldian zehar balantzetik baja ematen zaionean, hori azaldu egingo da, eta baita liburu-balioa eta baja ematean kontabilizatutako galeraren edo irabaziaren zenbatekoa ere.

2. *Balorazioak arrazoizko balioaren hierarkia-mailaren barruan sailkatzen dira, tresna finantzarioa osorik maila bakar batean sartuko dela kontuan hartuta.*

1. maila: balorazio-datan enpresak eskura ditzakeen aktibo edo pasibo berdinekin merkatu aktiboetan doitu gabe kotizatutako prezioak erabiltzen dituzten zenbatespenak.

2. maila: merkatu aktiboetan kotizatutako prezioak erabiltzen dituzten zenbatespenak, antzeko tresnetarako edo aldagai esanguratsu guztiak zuzenean edo zeharka beha daitezkeen merkatu-datuaren oinarrituta dauden beste balorazio-metodologia batzuetarako.

3. maila: zenbatespenak, zeinetan aldagai esanguratsuren bat merkatuko datu behagarrietan oinarrituta ez dagoen.

Arrazoizko balioaren zenbatespen bat balorazioaren emaitzarako esanguratsua den maila txikiaren aldagaiaren arrazoizko balioaren hierarkia-maila berean sailkatzen da. Ondore horietarako, aldagai esanguratsu bat da zenbatespenaren emaitzan eragin erabakigarria duena. Zenbatespena egiteko aldagai jakin batek duen garrantzia ebaluatzeko, kontuan hartuko dira baloratzen den aktiboaren edo pasiboaren baldintza espezifikoak.

3. *Arrazoizko balioaren arabera behin eta berriz baloratzen diren finantza-tresnen 1. eta 2. mailen arteko transferentzien zenbatekoak, betiere ekitaldiaren amaieran mantentzen badira*; transferentzien arrazoiak, eta hori zehazteko erakundearen politika, maila bakoitzeko irteerak eta sarrerak bereizita.
4. Balorazio-tekniken, teknika horietako aldaketan eta arrazoizko balioa zehazteko erabilitako aldagaien deskribapena, 2. eta 3. mailetan sailkatutako tresna finantzarioei dagokienez.
5. mailan sailkatutako tresna finantzarioen arrazoizko balioa zehazteko erabilitako aldagai ez-behagarri esanguratsuei buruzko informazio kuantitatiboa.
6. mailan sailkatuta dauden balorazioak dituzten tresna finantzarioen hasierako eta amaierako saldoak bateragarri egitea, honako hauek bereiziz: hauek kokatuta dauden partidak, erosketak, salmentak, jaulkipenak eta likidazioak, bai eta 3. mailarantz edo mailatik egindako transferentzien zenbatekoak ere. Enpresak bereizi egingo ditu galera-irabazien kontuan aintzatetsitako zenbatekoak: gauzatutakoak eta gauzatu gabeak. Zehazki, 3. mailarantz edo mailatik transferitzeko politika eta arrazoiak banakatuko dira.
7. mailan sailkatutako balorazioetan erabilitako balorazio-prozesuen deskribapen bat.
8. mailan sailkatutako balorazio errepikarietarako, deskribapen bat behagarriak ez diren aldagaien arabera balorazio horien sentikortasunari buruzkoa, baldin eta aldagai horiek aldatuz gero beste balorazio nabarmen desberdin bat egin badaiteke. Aldagai horiek balorazioan erabilitako behagarriak ez diren beste aldagai batzuekin lotuta badaude, deskribapen bat emango da, jasoko dituen erlazio horiek eta erlazio horiek balorazioari zer modutan eragin diezaioketen.
9. mailan sailkatutako tresna finantzarioen arrazoizko balioaren balorazioetarako, enpresak jakinaraziko du ea kasu nahiko gertagarriak izateko behagarriak ez diren aldagai batean edo gehiagotan egindako aldaketa batek aldaketa horien arrazoizko balioa eta eragina nabarmen aldatuko lituzkeen. Ondore horietarako, ekitaldiko emaitzaren, aktibo edo pasibo guztien edo ondare garbiaren guztizkoaren arabera epaituko da garrantzia.

9.2.3.3. *Taldeko enpresak, talde anitzekoak eta elkartuak*

Taldeko enpresei, talde anitzekoei eta elkartuei buruzko informazioa emango da, zehazki:

a) *Taldeko enpresen izena, egoitza eta forma juridikoa, eta bakoitzari buruz azalduko da:*

1. *Egiten dituen jarduerak.*
2. *Enpresak, zuzenean edo zeharka, kapitalean eta boto-eskubideetan duen zatia, biak bereizita.*
3. *Kapitalaren zenbatekoa, erreserbak, ondare garbiko bestelako partidak eta azken ekitaldiko emaitza, Merkataritzako Kodean eta kodea garatzeko arauetan ezarritako irizpideetatik ateratzen denaren arabera, ustiapeneko emaitza bereiziz eta eragiketa jarraituen emaitza eta etendako eragiketena banakatuz, taldeko enpresa bere urteko kontu indibidualetan informazio hori ematera behartuta dagoenean.*
4. *Kapital-partaidetzaren kontabilitate-balioa.*
5. *Ekitaldian hartutako dibidenduak.*
6. *Akzioek burtsan kotizatzen duten ala ez eta, kotizatzen badute, ekitaldiko azken hiru hilabeteetako batez besteko kotizazioa eta ekitaldi-itxierako kotizazioa.*

- b) *Aurreko puntuan adierazitako informazio bera beste enpresa hauei buruz ere: talde anitzeko enpresak, elkartuak, kapitalean % 20tik gorako partaidetza eduki arren eragin garrantzitsurik egiten ez zaienak eta sozietatea bazkide kolektibo den enpresak.* Halaber, jakitera eman beharko dira enpresa horien inguruan dauden kontingentziak. Enpresak kapitalaren % 20 baino gutxiago eduki arren eragin garrantzitsua badu beste enpresa batean, edo kapitalaren % 20 baino gehiago eduki arren eragin garrantzitsurik ez badu, harreman horiek esplikatzeko azalpenak emango ditu.
- c) *Beste enpresa bat mendeko bihurtzeko ekitaldian zehar egin diren eskuratzak xehetasunez emango dira, eskuratutako kapital-zatia eta boto-eskubideen ehunekoa adieraziz.*
- d) *Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bategineko 86. artikuluan jakinarazpenei buruz xedatutakoaren arabera, zuzenean edo zeharka % 10ean baino gehiagoan partaidetutako sozietateei egin zaizkien jakinarazpenak.*

- e) *Partaidetzetan narriaduragatik erregistratutako balio-zuzenketen zenbatekoa, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereizita. Era berean, halakorik dagoenean, erregistratzeko eta baloratzeko arauan ezarritakoari jarraituz ondare garbian balio-doikuntzak jasotzen dituen partidan balio-narriaduragatik zordundutako zuzkiduren edo abonatutako atzera-itzultzeen informazioa emango da.*
- f) *Taldeko enpresetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioak besterentzetik edo bestela xedatzetik sortutako emaitza.*

9.2.3.4. Bestelako informazioa

Informazio hau eman beharko da:

1. Aktibo finantzarioak erosteko konpromiso irmoak eta finantzaketa-iturri aurreikusgarriak; eta baita salmenta-konpromiso irmoak ere.
2. Aktibo ez-finantzarioak erosteko edo saltzeko kontratuak, finantza-tresnak erregistratzeko eta baloratzeko arauko 5.3 idatz-zatiaren arabera, arau horretan ezarritakoaren arabera kontabilizatu eta baloratu direnak.
3. Aktibo finantzarioetan eragina duten izaera substantiboko gainerako gorabeherak, hala nola: auziak, enbargoak edo antzeko egoerak.
4. *Deskontu-lerroetan erabilgarri dagoen zenbatekoa, eta enpresari emandako kreditu-polizak, bakoitzaren mugekin, eta erabilitako zatia zehaztuz.*
5. Berme erreala duten zorren zenbatekoa, bakoitzaren forma eta izaera adieraziz.

9.3. Finantza-tresnetatik sortutako arriskuaren izaera eta mailari buruzko informazioa

9.3.1. Informazio kualitatiboa

Arrisku mota bakoitzaren: kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta merkatu-arriskua (azken horretan, kanbio-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua eta bestelako prezio-arriskuak sartzen dira), arriskuarekiko esposizioa eta arriskua nola sortzen den adieraziko da, eta arrisku-kudeaketako helburuak, politikak eta prozedurak deskribatuko dira, eta baita arriskua neurtzeko erabiltzen diren metodoak ere.

Ekitaldi batetik bestera gai horietan aldaketarik badago, esplikatuko egin beharko dira.

9.3.2. Informazio kuantitatiboa

9.3.2.1. *Arrisku mota bakoitzari dagokionez, ekitaldiaren itxiera-datan arriskuarekiko dagoen esposizioari buruzko informazio kuantitatiboaren laburpen bat sartuko da Enpresako administrazio-kontseiluak edo gobernu-organo baliokideak enpresa-barrurako erabilitako informazioan oinarrituko da informazio hori*

Bereziki, arrisku mota bakoitzerako, gutxienez, ondoren adierazten den informazioa sartuko da:

a) Kreditu-arriskua

Kasu guztietan, ondorengo berri emango da:

1. Enpresak erabiltzen dituen ez-betetzeen definizioak, definizio horiek hautatzeko arrazoiak barne.
2. Tresnak biltzeko modua, narriaduragatik galerak oinarri kolektibo baten arabera neurtzen badira.
3. Ekitaldian gertatu diren kredituen aldaketen edo berregituraketan ezaugarri nagusiak.
4. Enpresaren balantzea ezerezteko edo horri baja emateko politika, berreskuratzeko arrazoizko aukerarik ez dagoela adierazten duten adierazleak barne, bai eta ezerezten diren aktibo finantzarioetarako politikari buruzko informazioa ere, oraindik ere bete beharreko jarduerak bati lotuta badaude.

Berandutzean edo narriatuta dauden aktibo finantzario mota bakoitzerako, honako hauei buruzko informazioa emango da:

1. Berandutza-egoeran dauden aktibo finantzarioen antzintasuna, jakinarazten den ekitaldiaren amaieran.
2. Aktibo finantzario mota bakoitzean narriaduragatik egindako balio-zuzenketen zenbatekoa eta aktibo horientzat galera-irabazien kontura egotzitako edozein sarrera finantzarioen zenbatekoa.

3. Jakinarazten den ekitaldiaren amaieran kreditu-arriskuarekiko esposizio maila handiena ondoen adierazten duen zenbatekoa, eta enpresak dituen bermeen eta bestelako kreditu-hobekuntzen deskribapena, baita haren finantza-eraginarena ere (adibidez, bermeek eta bestelako kreditu-hobekuntzek kreditu-arriskua arintzen duten neurriaren kuantifikazio bat), kreditu-arriskuarekiko esposizio maila handiena adierazten duen zenbatekoari dagokionez.

Enpresa batek ekitaldian zehar aktibo finantzarioak edo ez-finantzarioak lortu baditu kobrantza ziurtatzen zuten bermeak gauzatzean, edo beste kreditu-hobekuntza batzuk gauzatzean (adibidez, abalak), eta aktibo horiek aintzatespen-irizpideak betetzen badituzte, ekitaldi-itxieran mantendutako aktibo horiei dagokienez, erakundeak honako hauek adieraziko ditu:

1. Aktiboen izaera eta zenbatekoa liburuetan.
2. Ezin direnean aktiboak erraz bihurtu eskudiru, aktibo horiek besterentzeko edo beste bide batetik erabiltzeko bere politikak, edo aktibo horiek bere jardueretan erabiltzeko politikak.

b) Likidezia-arriskua

Epemuga jakina edo jakingarria duten pasibo finantzarioetan, ekitaldi-itxieraren hurrengo bost urteetako bakoitzean mugaeguneratuko diren zenbatekoak eta mugaeguneratu arte geratzen den gainerakoa adierazi behar dira. Datu horiek bereizita emango dira pasibo finantzarioetako partida bakoitzarentzat, balantze-ereduaren arabera.

Horrez gain, enpresak azaldu beharko du nola kudeatzen duen pasibo horien berezko likidezia-arriskua.

c) Merkatu-arriskua

Erakunde batek hurrengo paragrafoan ezarritakoa betetzen ez badu, honako hauei buruzko informazioa emango da:

1. Erakundeak ekitaldi-itxieran daukan merkatu-arrisku mota bakoitzerako sentikortasun-analisi bat; azterketa horretan adierazi beharko da aldi horretako emaitzari eta ondareari nola eragin diezaiokeen arrisku bakoitzak, arriskuaren aldagai garrantzitsuan izandako aldaketan ondorioz, baldin eta data horretan arrazoizko modu batean posible badira.
2. Sentikortasun-analisia egitean erabilitako metodoak eta hipotesiak.
3. Aurreko alditik izandako aldaketak erabilitako metodoetan eta hipotesietan, bai eta aldaketa horien arrazoiak ere.

Enpresa batek sentikortasun-analisi bat egingo balu, arrisku-balioa bezalakoa, arrisku-aldagaien arteko interdependentziak islatuko lituzkeena, eta arrisku finantzarioak kudeatzeko erabiliko balu, sentikortasun-analisi hori erabili ahal izango du, aurreko paragrafoan zehaztutakoaren ordeiz. Kasu horretan, honako hauek ere sartuko dira:

1. Sentikortasun-azterketa hori egitean erabilitako metodoaren azalpena, bai eta emandako datuen azpian dauden parametro eta hipotesi nagusien ere.
2. Erabilitako metodoaren helburuaren azalpena, bai eta informazioak inplikaturako aktibo eta pasiboen arrazoizko balioa erabat ez islatzea eragin dezaketen mugen azalpen bat ere.

9.3.2.2 Arrisku mota bakoitzari dagokionez, arrisku-kontzentrazioei buruzko informazioa sartuko da, barnean hartuko duena kontzentrazioa zehazteko moduaren deskribapena, kontzentrazio bakoitzaren ezaugarri komunak (eremu geografikoa, dibisa, merkatua, kontrapartida, etab.), eta ezaugarri horiek berak dituzten tresna finantzarioekin lotuta dagoen arriskuarekiko esposizioen zenbatekoa

9.4. Aktibo finantzarioen transferentziak

Jarraian jasotzen diren betekizunak aplikatzeko, enpresa batek aktibo finantzario bat (transferitutako aktibo finantzarioa) transferitzen du osorik edo partzialki, baldin eta, gutxienez, baldintza hauetako bat betetzen bada:

1. Aktibo finantzario horren eskudiru-fluxuak jasotzeko kontratu-eskubideak transferitzen ditu; edo
2. Aktibo finantzario horren eskudiru-fluxuak jasotzeko kontratu-eskubideak atxikitzen ditu, baina, akordio baten bidez, eskudiru-fluxu horiek hartzaile bati edo gehiagori ordaintzeko kontratu-obligazio bat hartzen du bere gain.

Enpresak aktibo finantzarioen lagapena egin duenean, baina aktiboen parte batek edo guztiek balantzean baja emateko baldintzak (tresna finantzarioak erregistratzeko eta baloratzeko bederatzigarren arauko 2.7 apartatuan azaltzen direnak) betetzen ez dituztenean, informazio hau emango du, aktibo moten arabera multzokatuta:

1. *Lagatako aktiboen izaera.*
2. Jabetzarekin lotutako zein arrisku eta onurak jarraitzen duten enpresarenak izaten.
3. *Enpresak erregistratuta mantentzen dituen lagatako aktiboen eta pasibo elkartuen liburu-balioa, eta*

4. *Inplikazioaren jarraipenagatik kontabilizatzan baditu enpresak aktiboak, hasieran balantzean azaltzen ziren aktiboen liburu-balioa, enpresak kontabilizatzan jarraitzen duen aktiboen liburu-balioa eta pasibo elkartuen liburu-balioa.*

9.5. Fondo propioak

Adierazi beharko dira:

- a) Akzio edo kapital-partaidetzen kopurua eta bakoitzaren balio nominala, motaka bereizita, eta baita ematen zaizkien eskubideak eta izan ditzaketen murrizketak ere. Erabat ordaindu gabe badaude, egiteko dauden ordainketak adierazi beharko dira eta noiz izango diren galdagarriak. Eta, hala badagokio, egiteko eta berandutze-egoeran dauden ordainketak, bai eta enpresak merkataritza-legeriaren esparruan gauzatu dituen jarduketak ere, eskatutako ordainketak berreskuratzeko. Informazio hori bera eskatuko da kapitalaz bestelako beste ondare-tresna batzuei buruz ere.
- b) Egiten ari den kapital-gehikuntza, harpidetzeko dauden akzioen edo partaidetzen kopurua adieraziz eta, berebat, balio nominala, jaulkipen-prima, hasierako ordainketa, emango dituzten eskubideak eta izango dituzten murrizketak, eta horrez gainera, bazkide, akziodun edo obligaziodunek lehentasunezko harpidetza-eskubiderik baduten ala ez, eta harpidetza egiteko ematen den epea.
- c) Akziodunen batzarrak administratzaileek zirkulazioan jartzeko baimendu duen kapitalaren zenbatekoa, baimen hori zein epealditarako luzatuko den adieraziz.
- d) Fundatzaile-bonu, gozamen-bonu, obligazio bihurtarri eta antzeko finantza-tresnei erantsitako eskubideak, zenbat diren eta zenbaterainoko eskubidea ematen duten adieraziz.
- e) Erreserben erabilgarritasuna murrizten duten egoera espezifikoak.
- f) Enpresaren esku edo enpresaren kontura diharduen hirugarren baten esku dauden akzio edo partaidetza propioen kopurua, balio nominala eta batez besteko eskuratze-prezioa, akzio edo partaidetza horientzat aurreikusita dagoen azken xedea eta sozietate gurasoaren akzioak eskuratzeagatik erreserbaren zenbatekoa. Bermetan hartutako akzio propioen kopurua, balio nominala eta dagokien erreserbaren zenbatekoa ere ezagutaraziko da. Halakorik dagoenean, kapitalaz bestelako ondare-tresnei dagokienez ere informazio bera emango da dagokien neurrian.
- g) Halakorik dagoenean, beste enpresa batek, zuzenean edo filialen bidez, kapitalean daukan partea, % 10ekoa edo handiagoa denean.
- h) Kotizazioan onartutako sozietatearen akzioak.
- i) Sozietateak jaulkitako erosteko edo saltzeko aukerak edo bere akzioen gaineko beste kontratu batzuk, fondo propio bezala sailkatu behar direnak, bakoitzaren baldintzak eta zenbatekoak deskribatuz.
- j) Bazkideek edo jabeek emandako diru-laguntza, dohaintza eta legatuei buruzko inguruabar espezifikoak.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M9.1-M9.17 orrialdeak) Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

10. IZAKINAK

Adierazi beharko dira:

- a) *Ekitaldian zehar izakinen narriaduragatik balio-zuzenketak kontabilizatzea (eta, halakorik dagoenean, atzera-itzultzea) eraman duten inguruabarrak edo gertakizunak eta, halaber, balio-doikuntzen zenbatekoa.*
- b) Izakinen narriaduragatik balio-zuzenketei buruz jarraitutako balorazio-irizpideak, bai eta zuzenketen zenbatekoa ere eta, kasuan, kontabilizatu balira, atzera itzulketena ere bai.
- c) Izakinen arrazoizko balioaren eta balio bihurtarri garbiaren artean alderik balego, hura justifikatuko duen informazioa. Balio bihurtarri garbia arrazoizko balioa baino txikiagoa denean, enpresak narriaduragatik galera kontabilizatuko du balio bihurtarri garbia izakinen liburu-balioa baino txikiagoa bada. Halako kasuetan, aplikaturiko irizpide eta balio-zuzenketa eragin duten zirkunstantziei buruzko informazio esanguratsu guztia sartu beharko da memorian.
- d) *Urtebetetik gorako produkzio-zikloa duten izakinetan ekitaldian zehar kapitalizatu diren finantza-gastuen zenbatekoa*, eta hori zehazteko erabili diren irizpideak. Zehazki, ICACaren 2015eko apirilaren 14ko ekoizpen-kostua zehazteko irizpideak ezartzen dituen Ebazpenaren bederatzigarren arauaren 4 c) atalean araututako batez besteko interes-tasa haztatua adieraziko da, bai eta kanbio-diferentziekin jarraitutako irizpidea eta, kasuaren arabera, diferentzia horiek interes-tasaren doitze gisa ulertzeko zergatia ere.
- e) *Izakinak erosteko eta saltzeko konpromiso irmoak, eta izakinei buruzko geroko kontratuei edota opzioei buruzko informazioa.*
- f) Erabilitako zeharkako kostuak egozteko irizpideak eta, ohiz kanpoko arrazoi justifikatu onorioz irizpide horiek aldatzekotan, arrazoi horiek azaldu beharko dira, aldaketek urteko kontuengandut eragin kuantitatiboa adieraziz.

- g) Beharrezkoa denean, modu egokian justifikatu beharko da kostu estandarren eta txikizkarien metodoaren aplikazioa izakinen baloraziorako, balorazio hori ICACaren 2015eko apirilaren 14ko ekoizpen-kostua zehazteko irizpideak ezartzen dituen Ebazpenean ezarritakoa aplikatu izanez gero ondorioztatu izango litzatekeen balorazioarekiko nabarmenki desberdina ez den neurrian.
- h) Baterako ekoizpenari kostuak esleitzeko erabilitako irizpideak eta adierazleak.
- i) Izakinak baloratzeko erabilitako balio-esleitze metodoak eta metodo horiek aplikatzeko erabilitako epeak.
- j) Salmenten itzuleren eta erosketen itzuleren eragina izakinen balorazioan.
- k) Faktura jaso ondoren gertatutako eskaeraren baldintzen ez-betetzearen ondorioa diren erosketen arabera "rappel" eta bestelako deskontu eta antzekoen eragina izakinen balorazioan.
- l) Berme, pignorazio, fidantza eta antzeko arrazoiengatik, izakinak xedatzeko dauden mugak, zein partida ukitzen duten eta zenbatekoa eta denborazko proiektzioa adieraziz.
- m) Izakinen titularitatean, erabilgarritasunean edo balorazioan eragina duten izaera substantiboko gainerako gorabeherak, hala nola: auziak, aseguruak, enbargoak, etab.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M10 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

11. ATZERRI-MONETA

1. *Atzerri-moneta izendatutako aktibo eta pasiboko elementuen zenbateko globala, barnean sartuz aktibo eta pasiborik esanguratsuenen banakatzea, monetara sailkatuta. Erosketei, salmentei eta hartu eta emandako zerbitzuei buruzko zenbatekoak ere adieraziko dira.*
2. *Enpresak informazio hau emango du:*
 - a) *Ekitaldiko emaitzan kontabilizatutako kanbio-diferentzien zenbatekoa, finantza-tresna moten arabera, bereizita aurkeztuz, alde batetik, denboraldian zehar likidatu diren transakzioetatik datozenak eta, beste aldetik, ekitaldiaren itxiera-datan bizirik edo mugaeguneratu gabe daudenak, eta kanpoan utziz galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako finantza-tresnetatik sortutakoak, eta*
 - b) *Ondare garbian aparteko osagai bezala, «Bihurketa-diferentziak» epigrafearen barruan, sailkatu diren bihurketa-diferentziak, eta diferentzia horien ekitaldi-hasierako eta -bukaerako zenbatekoen arteko kontziliazioa.*
3. Moneta funtzionala aldatu bada, dela informazioa ematen duen enpresan, dela atzerriko negozio esanguratsu batean, azaldu egin beharko da, eta baita aldaketa egiteko arrazioa ere.
4. Inoiz, salbuespenez, enpresak moneta funtzional bat baino gehiago erabiltzen baditu, moneta funtzional horietako bakoitzean adierazi diren aktiboen zenbatekoa, negozio-zifra eta emaitzak azaldu beharko ditu.
5. Atzerriko negozio baten moneta funtzionala urteko kontuak aurkezteko moneta bera ez denean, negozio horren moneta funtzionala eta negozio horretan egindako inbertsio garbia.
6. Enpresak atzerrian negozioak dituenean eta negozioak inflazio-tasa handia jasaten dutenean, hauek azaldu behar dira:
 - a) Urteko kontuak, eta aurreko ekitaldietako zifrak, doitu badira, doitu egin direla moneta funtzionalaren erosahalten orokorrean izandako aldaketak kontuan hartzeko eta, horren ondorioz, ekitaldi-itxierako moneta-unitate korrontean adierazita daudela.
 - b) Prezioen indize orokorraren identifikazioa eta balioa, ekitaldi-itxierako datan, eta, gainera, indizeak uneko ekitaldian eta aurrekoan izan duen mugimendua.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M11.1 eta M11.2 orrialdeak) Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

12. EGOERA FISKALA

12.1. Mozkinen gaineko zergak

Ekitaldiko sarreren eta gastuen arteko zenbateko garbiaren eta zerga-oinarriaren (emaitza fiskalaren) artean dagoen diferentziaren esplikazioa. Horretarako, ondorengo kontziliazio hau sartuko da, kontuan hartuz ezen erregistratzeko eta baloratzeko arauaren arabera denborazkotzat identifikatzen ez diren kopuru horien arteko diferentziak, diferentzia iraunkor bezala kalifikatuko direla.

**EKITALDIKO SARRERA ETA GASTUEN ZENBATEKO GARBIAREN ETA MOZKINEN GAINEKO ZERGAREN
ZERGA-OINARRIAREN ARTEKO KONTZILIAZIOA**

	Galdu-irabazien kontua		Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak		Erreserbak		Guztira
<i>Ekitaldiko sarreraren eta gastuen saldoa</i>							
	Gehikuntzak (Ge)	Gutxitzeak (Gu)	(Ge)	(Gu)	(Ge)	(Gu)	
<i>Sozietateen gaineko zerga</i>							
<i>Diferentzia iraunkorrak</i>							
<i>Denborazko diferentziak:</i> – ekitaldian sortutakoak – aurreko ekitaldietan sortutakoak							
<i>Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboaren konpentsazioa</i>							
<i>Zerga-oinarria (emaitza fiskala)</i>							

Batetik, mozkinen gaineko zergaren gastu/sarreraren eta, bestetik, sarrera eta gastu kontabilizatu guztiak aplikatu beharreko zerga-tasarekin biderkatuta ateratzen den emaitzaren esplikazioa eta zenbaki-kontziliazioa, galdu-irabazien kontuaren saldoa bereiziz.

Beste informazio ere hau eman beharko da gainera:

1. *Mozkinen gaineko zergaren gastuaren edo sarreraren banakatzea (zerga korrontea eta zerga geroratuen aldakuntza bereiziz), galdu-irabazien kontuaren emaitzara egotzitakoa —eragiketa jarraituei eta etendako eragiketei dagokien zenbatekoa bereiziz, halakorik dagoenean, eta enpresak, etendako eragiketarik sortutako emaitzen informazioa bereizita eman behar badu—; eta zuzenean ondare garbira egotzitakoa, kontabilizatutako sarreraren eta gastuen egoera-orriko epigrafe bakoitzari dagokiona bereiziz.*
2. *Zerga geroratuei dagokienez, banakatu egin beharko da diferentzia hori, aktiboen (denborazko diferentzia, zerga-oinarri negatiboengatik kredituak eta bestelako kredituak) eta pasiboen (denborazko diferentziak) arteko bereizketa eginez.*
3. *ICACaren 2016eko otsailaren 9ko mozkinen gaineko zerga kontabilizatzeko urteko kontuen erregistro-, balorazio- eta prestaketa-arauak ezartzen dituen Ebazpenean aurreikusitako salbuespenen arabera, denbora-diferentzia zergapegarrien ondorioz zerga gerotuen pasiboak kontabilizatzen ez direnean, horien existentziaren berri eman beharko da eta baita kontabilizatu ez diren pasiboen zenbatekoaren berri ere.*
4. *Denborazko diferentzia kengarrien, zerga-oinarri negatiboaren eta bestelako hartzeko fiskalen zenbatekoa eta aplikazio-epea, zerga geroratuengatik zegokion aktiboa balantzean erregistratu ez denean.*
5. *Zerga geroratuen aktiboen zenbatekoa, kontabilizatzeko erabili den ebidentzia zein izan den adieraziz, eta, halakorik dagoenean, plangintza fiskala barnean sartuz, aktiboa erabiltzea zergapeko denborazko diferentziak berdintzeari dagozkionak baino handiagoak diren etorkizuneko irabazien mende dagoenean, edo enpresak galera bat izan duenean, uneko ekitaldian edo aurrekoan, zerga geroratuen aktiboari dagokion herrialdean. Zehazki, enpresak uste badu hamar urtetik gorako epean zerga gerotuen aktiboak berreskuratzea posible delako presuntzioa ezeztatzen duten frogak badirela, uste hori zertan oinarritzen den adierazi beharko da xehetasun guztiekin.*
6. *Ekitaldian zehar denbora-diferentzien ondoriozko zerga gerotuen aktiboak, konpentsatu beharreko galera fiskalak edo erabili eta erregistratu ez diren eta aurreko ekitalditik datozen bestelako kenkari edo abantailak sortzen direnean, sorrera hori eragin duen egoera azalduko da aktibo horiek balantzean erregistratu ez zirenean zegoen egoerarekin alderatuz. Era berean, kenkarien ondoriozko kredituak eta bestelako onura fiskalak erregistratu badira eragiketa baten ondorioz eta onura horien aplikazio eraginkorra jarduerak jakin bat burutzearen menpe balego, informazio hori txostenean adieraziko da.*
7. *Ekitaldian zehar aplikatutako pizgarri fiskalekin lotutako konpromisoen izaera eta zenbatekoa, hala nola, mozkinak, kenkariak eta zenbait diferentzia iraunkor, eta baita kentzeko zain daudenak ere. Zehazki, periodifikatu diren pizgarri fiskalen berri emango da, ekitaldiari egotzitako zenbatekoa eta egozteke dagoen zenbatekoa adieraziz. Informazio horrek barne izango du periodifikaziorako erabilitako irizpideak, bai diferentzia iraunkorra gertatzen den edo kenkariak eta bestelako abantaila fiskalak aplikatzen diren ekitaldian, nahiz periodifikazioa amaitu arteko ondorengo ekitaldietan. Halaber, txostenean jakinaraziko da izaera substantiboko edozein egoera, ICACaren 2016eko otsailaren 9ko mozkinen gaineko zerga kontabilizatzeko urteko kontuen erregistro-, balorazio- eta prestaketa-arauak ezartzen dituen Ebazpenean aurreikusitako periodifikazioarekin loturarik badu.*
8. *Jurisdikzio fiskal bakoitzari ordaindu beharreko zerga adieraziko da gainera, kontura egindako ordainketak eta atxikipeanak xehatuz.*
9. *Gainerako diferentzia iraunkorrak identifikatuko dira, zenbatekoa eta izaera adieraziz.*

10. Espero den batez besteko karga-tasa zehazteko erabilitako estimazio eta kalkulu guztien berri emango da, egungo balioen eta etorkizuneko balio estimatuen arteko aldaketak eta aldeak justifikatuz. Halaber, garrantzi erlatiboaren printzipioari jarraituz, erabilgarri dagoen azken batez besteko karga-tasa erabiltzea erabakitzen denean, erabaki hori hartzearen zergatiak azaldu beharko dira, edozein kasutan ere, zerga gerotuen aktiboen eta pasiboen balorazioari eragin diezaioketela uste den etorkizuneko gertaeren berri emanez.
11. Aplikatzekoak diren zerga-tasetan izandako aldaketak, aurreko ekitaldikoekin konparatuta. Aurreko ekitaldian erregistratutako zerga geroratuetan duten eragina adieraziko da.
12. Mozkinen gaineko zergatik eratorritako hornidurei buruzko informazioa, eta izaera fiskaleko kontingentzia eta itxiera ondorengo gertaerei buruzkoa, erregistratutako aktibo eta pasibo fiskalak ukitzen dituen aldaketaren bat izan denean zerga-araudian. Bereziki, egiaztatze dauden ekitaldiei buruzko informazioa emango da.
13. Zerga-araudiak ezarritako erregimen bereziren bat aplikatzen duten erakundeek dagokion erregimenari buruzko informazioa aurkeztu beharko dute, erregimena aplikatzeko baldintzak bete direla adieraziz eta, kasuaren arabera, baldintza horiek betetzeari utzi diotela, egoera horrek finantza-egoeran duen eragina zehaztuz. Zehazki, gardentasun fiskalean oinarritutako erregimen bereziren batean dauden erakundeak direnean, jakinarazi beharko dira bazkideei egotzitako zerga-oinarriak, kenkariak eta kuotaren hobariak, atxikipenak, zatikako ordainketak, konturako diru-sarrerak, gardentasun fiskala aplikatzen duen sozietateak ordaindutako kuota, eta baita erakunde horri egotzitako bestelako kuotak ere.
14. Zerga-finkapeneko erregimeneko erakundeek kasuan, talde fiskaleko sozietate bakoitzak txostenean sartu beharko du, ICACaren 2016eko otsailaren 9ko mozkinen gaineko zerga kontabilizatzeko urteko kontuen erregistro-, balorazio- eta prestaketa- arauak ezartzen dituen Ebazpenean xedatutakoaren arabera derrigorrezkoak diren adierazpenez gain, zerga-erregimen berezi honi buruzko beste edozein egoera aipagarri, zehazki adieraziz:
 1. Erregimen berezi honen ondorioz sortutako diferentzia iraunkorrak eta denbora-diferentziak, denbora-diferentzien kasuan sortu ziren ekitaldia eta ekitaldi bakoitzean burututako berrikusketa adieraziz.
 2. Sozietate-taldeek erregimena aplikatzearen ondoriozko zerga-oinarri negatiboen konpentsazioak.
 3. Sozietate-taldeek erregimenak sortutako zerga-efektuaren ondorioz taldeko enpresen arteko kreditu eta zor nagusien banantzea.
15. Atzerrian zergak ordaindu behar dituzten sozietateek sozietatearen mozkinak zergapetzen dituzten atzerriko zergen berri eman beharko dute, erregimen fiskal aplikagarriaren arabera azalduz sozietatearen urteko kontuei eragiten dieten egoera guztiak, horretarako Espainiako Sozietateen gaineko Zergarako ezarritako informazio-eskema bera jarraituz.
16. Egoera fiskalari buruzko izaera substantiboko bestelako inguruabar guztiak.

12.2. Bestelako tributuak

Bestelako tributuak buruzko gorabehera garrantzitsuak, izaera fiskaleko kontingentziak batez ere, eta egiaztatze dauden ekitaldiei buruzko informazioa.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M12 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

13. SARRERAK ETA GASTUAK

13.1. Kontsiderazio orokorrak eta helburua

1. Memoria-ohar honetan sarrerei buruz sartu beharreko informazio-eskakizunen helburua da enpresak behar besteko informazioa ematea, urteko kontuen erabiltzaileek ulertu ahal izan dezaten bezeroekin egindako kontratuetatik sortzen diren jarduera arrunten eta eskuditu-fluxuen sarreren izaera, zenbatekoa, egutegia eta ziurgabetasuna. Helburu hori lortzeko, enpresak informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa emango du honako alderdi hauen gainean:

- a) Bezeroekin egindako kontratuak,
 - b) Judizio esanguratsuak eta judizio horietako aldaketak, kontratu horien gainean eginak, eta
 - c) Bezero batekin kontratua lortzeko edo betetzeko kostuengatik aintzatetsitako aktiboak.
2. Informazio hori ematerakoan, enpresak adieraziko den informazioaren helburua betetzeko behar den xehetasun-maila zein izango den erabakiko du, bai eta eskakizun bakoitzari zenbateko enfasia jarri behar zaion ere. Horretarako, jakinarazi beharreko informazioa gehitu edo bereiziko du, informazio erabilgarria ez dadin estali xehetasun hutsalen bolumen handia sartzeagatik edo ezaugarri desberdinak dituzten partidak gehitzeagatik.

13.2. Bezeroekin egindako kontratuei buruzko informazioa

1. Jarduera arrunten sarrerak bereiztea

- a) Enpresak bereiziko ditu bezeroekin egindako kontratuetatik datozen jarduera arruntetatik aintzatetsitako sarrerak, jarduera arrunten eta eskudiru-fluxuen sarreren izaera, zenbateko eta ziurgabetasunari faktore ekonomikoek nola eragiten dieten adierazten duten kategorietan.
- b) Jarduera arrunten sarrerak bereizteko erabili beharreko kategoria mota (edo kategoriak) hautatzean, enpresak kontuan hartuko du jarduera arrunten sarrerei buruzko informazioa beste helburu batzuetarako nola aurkeztu den, honako hauek barne:
 - 1. Urteko kontuetatik kanpo aurkeztutako jakinarazteko informazioa.
 - 2. Agintaritza gorenak erregulariki berrikusitako informazioa, eragiketa-segmentuen finantza-errendimendua ebaluatzeko erabakiak hartzean.
 - 3. Aurreko paragrafoetan identifikatutako informazio-moten antzekoa den beste informazio bat, enpresak edo urteko kontuen erabiltzaileek enpresaren finantza-errendimendua ebaluatzeko edo baliabideak esleitzeari buruzko erabakiak hartzeko erabiltzen dutena.
- c) Egokia izan daiteke honako kategorietako batzuk sartzea:
 - 1. Ondasun edo zerbitzu mota (adibidez, produktu nagusien lineak).
 - 2. Eskualde geografikoa (adibidez, herrialdea edo eskualdea).
 - 3. Merkatua edo bezero mota (adibidez, Administrazio Publikoko bezeroak eta beste bezero batzuk).
 - 4. Kontratu mota (adibidez, prezio finkoko kontratuak, denboraren arabekoak eta materialen arabekoak).
 - 5. Kontratuaren iraupena (adibidez, epe laburreko eta luzeko kontratuak).
 - 6. Ondasunak edo zerbitzuak transferitzeko egutegia (adibidez, une jakin batean bezeroei transferitutako ondasun edo zerbitzuetatik datozen jarduera arruntetako sarrerak eta denboran zehar transferitutako ondasun edo zerbitzuetatik datozen jarduera arruntetako sarrerak).
 - 7. Salmenta-kanalak (adibidez, bezeroei zuzenean saldutako ondasunak eta bitartekarien bidez saldutako ondasunak).

2. Kontratuaren saldoak

Enpresak informazioa emango du kobratzeko dauden kontuen irekitzeko eta ixteko saldoei buruz, kontratuko aktiboei buruz eta kontratuko pasiboei buruz –bezeroekin egindako akordioetatik eratorritakoak–, balantzean bereizita aurkezten ez badira. Zehazki, banakatu egingo dira kobrantza-eskubideaz edo eskudiruaz bestelako sarrerak aintzatesteagatik kontabilizatutako kontrapartidak.

3. Bete beharreko obligazioak

Bezeroarekiko bere gain hartutako obligazioei buruzko informazioa emango du enpresak, honako alderdi hauen deskribapena barne:

- a) Noiz betetzen dituen enpresak bezeroarekiko obligazioak (adibidez, bidaltzeko unean, entregatzeko unean, eman ahala edo zerbitzua osatzen den unean), fakturazioaren ondorengo entrega-akordio batean obligazioak noiz betetzen diren barne.
- b) Ordainketa-baldintza esanguratsuak (adibidez, noiz eskatzen den eskuarki ordainketa, kontratuak ea baduen finantzaketa-osagai esanguratsuren bat, ea kontraprestazioaren zenbatekoa aldakorra den eta ea zenbatesteko dauden mugek mugatzen duten kontraprestazio aldakorren zenbatespena).
- c) Enpresak transferitzeko konpromisoa hartu duen ondasun edo zerbitzuen izaera; eta nabarmentzen da hirugarren batentzat ondasunen edo zerbitzuen transferentzia antolatzeko edozein obligazio, hau da, enpresa agente edo komisionista gisa ari bada.
- d) Itzultzeko obligazioak, errenbolto-obligazioak eta antzeko beste obligazio batzuk.
- e) Erlazionatutako berme eta obligazio motak.

13.3. Erregistratzeko eta baloratzeko araua aplikatzean esanguratsuak diren judizioei buruzko informazioa

Salmenten eta zerbitzuak ematearen ondoriozko sarrerak erregistratzeko eta baloratzeko araua aplikatuz egindako judizio eta judizio-aldaketen berri emango du enpresak, baldin eta bezeroekin egindako kontratuetako jarduera arrunten sarreren zenbatekoa eta

egutegia zehazteari nabarmen eragiten badiote. Zehazki, honako alderdi hauek zehaztean erabilitako judizioak eta judizio-aldaketak azalduko ditu enpresak:

1. Enpresak bezeroarekiko dituen obligazioak betetzeko aurreikusten den egutegia.
 - a) Enpresak bere gain hartutako eta denboran zehar betetzen doan obligazioei dagokienez, enpresak honako alderdi hauek azalduko ditu:
 1. Jarduera arrunten aurrerapen-maila zehazteko eta sarrerak ezagutzeko erabilitako metodoak (adibidez, produktu-metodoen edo erabilitako baliabideen metodoen deskribapena eta horiek aplikatzeko modua).
 2. Azalpen bat, erabilitako metodoek ondasun edo zerbitzuen adierazpide fidela zergatik ematen duten azaltzeko.
 - b) Une jakin batean ordaintzen diren obligazioen kasuan, bezero batek konprometitutako ondasun edo zerbitzuen kontrola noiz lortzen duen ebaluatzeko egindako judizio esanguratsuen berri emango du enpresak.
2. Transakzioaren prezioa eta obligazio bakoitzari esleitutako zenbatekoak.

Enpresak honako alderdi hauetarako erabilitako metodoei, sarrera-datuei eta suposizioei buruzko informazioa jasoko du:

- a) Transakzioaren prezioa zehaztea, barne hartzen dituen, baina ez soilik, kontraprestazio aldakorraren zenbatespena, diruaren denbora-balioaren ondorioengatik kontraprestazioaren doikuntza eta eskudirua ez den kontraprestazioaren neurketa,
- b) Kontraprestazio aldakorraren zenbatespena mugatuta dagoen ebaluatzea,
- c) Transakzioaren prezioa esleitzea, barne hartuta hitzartutako ondasun eta zerbitzuen salmenta-prezio independenteen zenbatespena eta kontratuaren zati espezifiko bati egiten zaion deskontuen eta kontraprestazio aldakorraren banaketa (aplikagarria bada), eta
- d) Itzultzeko obligazioek, errenbolto-obligazioek eta antzeko beste obligazio batzuek eragindako diru-inpaktua zenbatea.

13.4. Bezero batekin kontratua lortzeko edo betetzeko kostuengatik aintzatetsitako aktiboei buruzko informazioa

Enpresak honako informazio hau jasoko du:

- a) Bezero batekin kontratu bat lortzeko edo hura betetzeko izandako kostuen zenbatekoa zehazteko egindako judizioak.
- b) Galera-irabazien kontura egozteko edo ekitaldi bakoitzerako amortizazioa zehazteko erabiltzen duen metodoa.
- c) Aktiboak ixteko saldoak, bezero batekin kontratu bat lortzeko edo betetzeko izandako kostuengatik aintzatetsiak, aktiboaren kategoria nagusiaren arabera.
- d) Galera-irabazien kontura egoztearen ondoriozko gastuaren zenbatekoa edo amortizazioa eta ekitaldian kontabilizatutako balio-nariaduragatik izandako edozein galera.

13.5. Gastu jakin batzuei buruzko informazioa

Honako informazio hau sartu beharko da:

- a) *Galera-irabazien kontuko 4.a) eta 4.b) partiden («Salgaien kontsumoa» eta «Lehengaien eta beste gai kontsumigarri batzuen kontsumoa») banakapena, eta bereizketa egingo da erosketen eta izakinen aldakuntzen artean. Era berean, nazio mailako erosketak, autonomia-erkidego barruko eskuratzeak eta inportazioak bereiziko dira.*
- b) *Galera-irabazien kontuko 6.b) partidaren («Karga sozialak») banakapena, eta bereizketa egingo da gizarte-aurreikuspenetarako ekarpen eta zuzkiduren eta bestelako karga sozialen artean.*
- c) *Enpresak galera-irabazien kontu laburtua formulatzen badu, apartatu honetan sartu beharko ditu kontu horren eredu laburtuko 4. eta 6. partidei («Hornikuntzak» eta «Langileen gastuak», hurrenez hurren) dagokienez lehen adierazitako banakatzeak.*

13.6. Bestelako emaitzak

Enpresaren ohiko jardueratik kanpo sortutako emaitzen berri eman beharko da. Emaitza horiek «Bestelako emaitzak» partidan sartuta daude.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M13 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

14. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

1. *Balantzean kontabilizatutako hornidura bakoitzeko, adierazi beharko da:*

a) *Balantzeko partida bakoitzak ekitaldian izan duen mugimenduaren analisia, zehaztuz:*

- *Hasierako saldoa.*
- *Zuzkidurak.*
- *Aplikazioak.*
- *Egindako bestelako doikuntzak (negozio-konbinazioak, etab.).*
- *Amaierako saldoa.*

Zati honetan ez da konparaziozko informaziorik eman beharko.

b) *Ekitaldian zehar, deskontu-tasan eguneratutako saldoetan denbora pasatzeagatik izan den gorakadaren informazioa, eta deskontu-tasan izandako edozein aldaketak izan duen eragina.*

Zati honetan ez da konparaziozko informaziorik eman beharko.

c) *Asumitutako obligazioaren deskripzioa.*

d) *Zenbateko bakoitzaren balorazioa egiteko aplikatu diren kalkulu-prozedura eta zenbatespenen deskripzioa, eta baita zenbatespen horietan ager daitezkeen ziurgabetasunen azalpena ere. Doikuntzarik egin bada, egin behar izan diren doikuntzak justifikatuko dira.*

e) *Errenboltso-eskubide guztien zenbatekoak, eskubide horiengatik balantzearen aktiboan kontabilizatu diren kopuruak adieraziz, halakorik dagoenean.*

2. *Baliabideen irteera oso urrunekoa ez bada behintzat, kontingentzia mota bakoitzerako adieraziko da:*

- a) *Izaeraren azalpen labur bat.*
- b) *Eboluzio aurreikusgarria, eta zein faktoreren baitan dagoen.*
- c) *Egoera-orri finantzarioetan izan ditzakeen ondorioen zenbatespen kuantifikatua eta, ezingo balitz egin, zergatik ezin den egin eta ezintasuna eragiten duten ziurgabetasunei buruzko informazioa, gutxieneko eta gehiengo arriskuak adieraziz.*
- d) *Egon daitezkeen errenboltso-eskubideak.*
- e) *Inoiz, salbuespenez, horniduraren bat balantzean ezin izan bada erregistratu, ezin izan delako fidagarritasunez baloratu, balorazio hori ezin egin ahal izateko dauden arrazoiak azalduko dira, aurrekoaz gain.*

3. *Kontabilizatzeko irizpideak betetzen ez dituzten aktiboetatik enpresarentzat irabaziak edo etekin ekonomikoak sartzeko probabilitate handia dagoenean, adierazi behar da:*

- a) *Izaeraren azalpen labur bat.*
- b) *Eboluzio aurreikusgarria, eta zein faktoreren baitan dagoen.*
- c) *Estimazioa egiteko erabili diren irizpideak, eta egoera-orri finantzarioetan izan ditzakeen ondorioak eta, ezin baldin bada egin, zergatik ezin den egin eta ezintasuna eragiten duten ziurgabetasunei buruzko informazioa.*

4. *Inoiz, salbuespenez, hirugarren batekin auzia egonik, aurreko idatz-zatietan eskatzen den informazioak enpresari kalte handia egingo balio, ez da derrigorrezkoa izango informazio hori ematea, baina auziaren izaera deskribatuko da, eta informazio hori ez dela eman azalduko da, erabaki hori hartzeko izan diren arrazoiak agertuz.*

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M14 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

15. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Informazio hauek eman beharko dira:

- a) Ingurumen-inpaktua minimizatzeko eta ingurumena babesteko eta hobetzeko helburuarekin ibilgetu materialean gehitu diren sistema, ekipamendu eta instalaziorik esanguratsuenen deskripzioa, nolakoak eta zertarako diren adieraziz eta, berebat, *kontabilitate-balioa eta bakoitzaren amortizazio metatua, bakoitzarena banaka zehazterik badago, eta baita narriaduragatik egindako balio-zuzenketak ere, ekitaldian kontabilizatuak eta metatutakoak bereizita.*
- b) *Ekitaldian ingurumena babesteko eta hobetzeko egindako gastuak, xedea adieraziz.*
- c) Ingurumen-jardueretarako hornidurekin estalitako arriskuak, bereziki adieraziz egin bidean dauden auzietatik, kalte-ordainetatik eta bestelakoetatik sortutakoak; *14. oharreko 1. idatz-zatian balantzean kontabilizatutako horniduretarako eskatzen den informazioa emango da hornidura bakoitzari buruz.*
- d) Ingurumena babestearekin eta hobetzearekin lotutako kontingentziak, *14. oharreko 2. idatz-zatian eskatutako informazioa ere barnean sartuz.*
- e) *Ingurumenarekin lotutako arrazoiengatik ekitaldian egindako inbertsioak.*
- f) *Hirugarrenengandik jaso beharreko konpentsazioak.*

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M15 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

16. PERTSONALAREN EPE LUZEKO LANSARIAK

- 1. Enpresak pertsonalarentzat ekarpen edo prestazio definituko epe luzeko lansariak ematen dituenean, zein plan motatakoa den azaltzeko deskripzio orokor bat sartu behar du.
- 2. Pertsonalarentzako prestazio definituko epe luzeko lansariak direnean, horrez gain, *14. oharreko 1. idatz-zatian balantzean kontabilizatutako hornidurentzat eskatzen den informazioa sartu behar da, eta gainera:*
 - a) *Balantzean kontabilizatutako aktiboen eta pasiboen arteko kontziliazioa.*
 - b) Planari lotutako aktiboen arrazoizko balioan sartutako partiden zenbatekoa.
 - c) Erabilitako hipotesi aktuarial nagusiak, ekitaldi-itxieran zuten balioarekin.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M16 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

17. ONDARE-TRESNEN BIDEZ ORDAINDU BEHARREKO TRANSAKZIOAK

Ondare-tresnen bidez ordaindu beharreko akordio bakoitzeko, adierazi behar da:

- 1. Ekitaldian zehar ondare-tresna bidez ordaintzeko egindako akordio mota bakoitzaren deskripzioa, onuraduna adieraziz. Akordio horiek antzeko ezaugarriak baldin badituzte, denak batera hartuz eman ahal izango da informazioa, informazio horrek akordioen izaera eta norainokoa ulertzeko aukera ematen badu behintzat.
- 2. Ondare-tresnen bidez ordaintzeko transakzioetan pasiboak erregistratu behar direnean, *14. oharreko 1. idatz-zatian balantzean kontabilizatutako horniduretarako eskatzen den informazioa sartu beharko da.*
- 3. Transakzioak akzioen gaineko opzioen bidez ordaindu behar direnean, adierazi beharko da:
 - a) Ekitaldiaren hasieran eta amaieran zeuden opzioen kopurua eta egikaritze-prezioen batez besteko haztatua, ekitaldian zehar emandako eta deuseztatutako opzioak, eta ekitaldian zehar iraungi direnak. Azkenik, informazio hori bera emango da denboraldiaren bukaeran egikari daitezkeenei buruz ere.
 - b) Ekitaldian egikaritutako akzioen gaineko opzioetan, akzioen egikaritze-datako batez besteko prezio haztatua adieraziko da, edo akzio bakoitzaren denboraldi guztiko batez besteko prezio haztatua, nahi bada.
 - c) Ekitaldiaren amaieran dauden opzioei dagokienez, egikaritze-prezioen barrutia, eta geratzen zaien batez besteko biritza haztatua.

Hartutako ondasunen edo zerbitzuen arrazoizko balioa edo emandako ondare-tresnen arrazoizko balioa ekitaldian zehar nola kalkulatu den adierazi beharko da.

Ondare-tresnen bidez ordaintzeko transakzioek enpresaren egoera finantzarioan eta emaitzan izan duten eragina adierazi beharko da.

4. Hartutako ondasunen eta zerbitzuen arrazoizko balioa ezin denean fidagarritasunez neurtu, erregistratzeko eta baloratzeko arauan ezartzen denaren arabera, hori hala izan dela azaldu beharko da, ezintasun horren arrazoiak esplikatuz.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau ez dago normalizatuta. Aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

18. DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Adierazi beharko dira:

1. *Hartutako diru-laguntza, dohaintza eta legatuen zenbatekoa eta ezaugarriak, bai balantzean ageri direnenak eta bai galdurabazien kontura egotzi direnenak.*
2. *Balantzean dagokien azpimultzoaren edukiaren mugimenduaren analisia, hasierako eta amaierako saldoa eta gehitzeak eta gutxitzeak adieraziz. Berezik, hartutako eta, kasua denean, itzulitako zenbatekoak adierazi beharko dira.*
3. Diru-laguntzen, dohaintzen eta legatuen jatorriari buruzko informazioa, diru-laguntzak direnean zein erakunde publikok eman dituen adieraziz, eta tokikoa, autonomia-erkidegokoa, estatukoa edo nazioartekoa den zehaztuz gainera.
4. Diru-laguntza, dohaintza eta legatuekin lotutako baldintzak bete diren ala ez azaltzeko informazioa.

● **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M18 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

19. NEGOZIO-KONBINAZIOAK

1. Enpresa eskuratzailerak, ekitaldian egindako negozio-konbinazio bakoitzari dagokionez, informazio hau emango du:

- a) *Eskuratutako enpresaren edo enpresen izena eta deskribapena.*
- b) *Eskuratze-data.*
- c) *Konbinazioa egiteko erabili den forma juridikoa.*
- d) *Negozioen konbinazioa eragin duten arrazoi nagusiak, baita merkataritzako faktoreen deskribapen kualitatiboa ere, hala nola eskuratutakoen eta eskuratzaileraren konbinazio-eragiketetatik esperotako sinergiak, bereizita onartzeko baldintzak betetzen ez dituzten ibilgetu ukiezinak edo beste faktore batzuk.*
- e) *Eskualdatutako kontraprestazioaren guztizkoaren eta kontraprestazio mota nagusi bakoitzaren erosketa-datan arrazoizkoa den balioa, esaterako:*
 - *Eskudirua.*
 - *Bestelako aktibo materialak edo ukiezinak, adibidez, eskuratzaileraren mendeko negozio edo enpresaren bat.*
 - *Gerta daitekeen kontraprestazioaren zenbatekoa; hitzarmenaren deskribapena g) letran eman beharko da.*
 - *Zor-tresnak.*
 - *Eskuratzaileraren ondare-partaidetza, zenbat ondare-tresna jaulki edo jaulkiko diren eta horien arrazoizko balioa zenbatesteko metodoa barne.*

Horrez gain, erositako enpresaren ondarean aldeztu aurretiko partaidetzen berri emango da, etapakako negozio-konbinazioetan haren kontrola eragin ez badute.
- f) *Eskuratutako enpresaren aktibo eta pasiboen mota bakoitzari dagokionez, eskuratze-datan kontabilizatutako zenbatekoak, erregistratzeko eta baloratzeko arauaren arabera beren arrazoizko balioan jasotzen ez direnak aipatuz.*
- g) *Etorkizuneko gertakarien mende dauden kontraprestazio kontingente guztietarako, eta kontingentzia edo ziurgabetasun bategatik kalte-ordain gisa jasotako aktiboetarako: eskuratzeko unean aitortutako zenbatekoa, akordioaren deskribapena, eta emaitza posibleen tartearen estimazioa. Eskuratze-baldintzen arabera, hartzaileak ordainketak egin behar baditu etorkizunean, horien gehienezko zenbateko potentziala ere estimatu beharko da. Ezin badira horiek estimatu, hori jakinaraziko da, eta azaldu egin beharko da zergatik ezin diren horiek estimatu.*

Informazio hori bera eman beharko da aktibo kontingenteen edo kalte-ordainagatik aktiboen gainean; adibidez, akordioak klausula batek ezartzen badu hartzaileak kalte-ordaina jaso behar duela hartuak amaitu gabe dituen auzien erantzukizunagatik.

- h) *Eskuratutako kobratu gabeko kontuen arrazoizko balioa, kobratzeko dauden kontratu-zenbateko gordinak, eta kobratzea espero ez den kontratuko eskuditu-fluxuen estimazio hoberena eskuratze-datan. Kobratzeko dagoen kontuaren mota nagusiaren arabera eman beharko da informazio guztia, hala nola, maileguen, zuzeneko finantza-errentamenduen eta kobratzeko dauden beste edozein motatako kontuen arabera.*
- i) Negozio-konbinazioetan merkataritza-fondorik sortu bada, 7. oharreko 2. idatz-zatian eskatzen den informazioa eman beharko du enpresak. Era berean, jakinarazi beharko da merkataritzako funtseko zer zenbateko kendu ahal izatea espero den zergen ikuspegitik.
- j) “Aurretiko harremanetarako”, hau da, negozioak konbinatu baino lehen hartzaileak eta hartuak harremana izan duten egoeretarako: transakzioaren deskribapena, transakzio bakoitzaren zenbateko aitortua, eta, aurretik existitzen zen harremana ezerezteko transakzioa bada, ezerezte horren zenbatekoa zehazteko erabilitako metodoa.
2. *Negozio-konbinazioko eskuratzailearen eta eskuratuaren artean aurretik datorren erlazio bat bazegoen, eskuratze-datan, erlazio hori nolakoa den adieraziko da eta, kasua denean, aurretiko erlazio hori kitatzeko zenbatekoaren balorazioa, zehazteko erabili den metodoa, likidazio horren ondorioz kontabilizatutako emaitza oro eta zein partidatan azaltzen den.*
3. Etapaka egindako negozio-konbinazio batean:
- a) Hartuaren ondareko parte-hartzeen arrazoizko balioa eskuratzeko unean, eskuratu baino lehenago hartzaileak mantendu dituenena.
- b) Negozioak konbinatu baino lehenago hartzaileak mantendutako hartuaren ondarearen parte-hartzearen arrazoizko balioa berriz balioestetik sortutako aitortutako irabazien edo galeren zenbatekoa, eta irabazi edo galera hori aitortuta dagoen galdu-irabazien kontuaren partida.
4. Aurreko idatz-zatian eskatutako informazioa modu agregatuan emango da ekitaldi ekonomikoan zehar egin diren eta, banaka, garrantzi erlatiborik ez duten negozio-konbinazioetan.
- Horrez gainera, enpresa eskuratzaileak aurreko idatz-zatian zehazten den informazioa eman beharko du urteko kontuen itxendaren eta formulatze-daren bitartean egindako negozio-konbinazioei buruz ere, ahal baldin bada behintzat. Ezin denean, informazio hori zergatik ezin den eman azaltzeko arrazoiak emango dira.
- Martxan dagoen prozesuaren alderdi nagusien berri eman beharko du hartutako sozietateak edo negozioak bere urteko kontuetan.
5. Enpresa eskuratzaileak *eskuratze-datatik geroztik konbinaziora egoztekoa den sarreraren eta emaitzaren parte azalduko du, ekitaldian egindako negozio-konbinazio bakoitzarentzat banaka, aparte hartuta, edo modu agregatuan, banaka garrantzi erlatiborik ez dutenean. Era berean, adieraziko ditu negozio-konbinaziotik ateratako enpresak lortu izango lituzkeen sarrerak eta ekitaldiko emaitza, alegia, hipotesitzat hartuta ekitaldian egindako negozio-konbinazio guztiak ekitaldi-hasieran egin direla.*
- Informazio hori ezin baldin bada eman, ezin dela eman eta zergatik ezin den eman azalduko da.
6. Informazio hau eman beharko da ekitaldian edo aurreko ekitaldietan egindako negozio-konbinazioei dagokienez:
- a) Hasieran kontabilizatutako zenbatekoa behin-behinean bakarrik zehaztu baldin bada, hasierako kontabilizazioa zergatik ez den osoa azaltzeko arrazoiak emango dira, eta, gainera, oraindik balorazio-epea irekita duten aktibo eskuratuak eta konpromiso asumituak, eta ekitaldian zehar balorazioan egindako doikuntza ororen zenbatekoa eta izaera.
- b) Negozio-konbinazioaren parte bezala eskuratutako zerga geroratuak ekitaldian kontabilizatutara eraman duten eskuratze-daren ondorengo gertaera edo zirkunstantzien deskripzioa.
- c) Eskuratutako aktiboekin edo asumitutako pasiboekin erlazionatuta ekitaldian kontabilizatutako irabazi edo galera ororen zenbatekoa eta justifikazioa, duten zenbatekoagatik, izaeragatik edo intzidentziagatik garrantzizkoak badira negozio-konbinazioaren ondorioz sortutako enpresaren urteko kontuak ulertzeko.
- d) Erakundeak kontraprestazio kontingente bategatiko aktibo baten eskubidea kobratzen edo besterentzen duen arte, edo horren gaineko eskubidea galtzen duen arte beste edozein modutan, edo erakundeak kontraprestazio kontingente batetik sortutako pasibo bat likidatzen duen arte, edo pasiboa deuseztatzen edo iraungitzen den arte, aitortutako zenbatekoetan gertatzen diren aldaketa guztien berri eman beharko da, eta kontuan hartuko dira likidaziotik sortutako diferentziak, deskontatu gabeko emaitza posibleen tarteko aldaketa guztiak eta aldaketa horiek eragin dituzten arrazoiak, eta kontraprestazio kontingentea balioesteko erabilitako balioespen-teknikak.
- **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M19.1 eta M19.2 orrialdeak) Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

20. BATERAKO NEGOTZIOAK

1. Baterako negozioetan dituen interes esanguratsuak azaldu eta deskribatuko ditu enpresak, negozioak hartzen duen formari buruzko xehetasunak emanez eta garbi bereiziz:

- a) Elkarrekin batera kontrolatutako ustiapenak, eta
 - b) Elkarrekin batera kontrolatutako aktiboak.
2. 14. oharreko 2. idatz-zatian zehazten den informazioaren eragozpenik gabe, bakoitza bere aldetik hartuz azaldu beharko da ondorengo kontingentzia hauen zenbateko agregatuari buruzko informazioa, galera izateko probabilitatea oso urrunkoa denean izan ezik:
- a) Baterako negozioetan egindako inbertsioetan, enpresak partaide moduan dituen kontingentziak, eta beste partaideekin batera elkarrekin dituen kontingentzietako bakoitzean duen partea.
 - b) Bera erantzule izan daitekeen baterako negozioetako kontingentzietan duen partea, eta
 - c) Baterako negozioan partaide izateagatik, beste partaide baten pasiboen erantzule izan litekeelako enpresari sortzen zaizkion kontingentziak.
3. Enpresak bakoitza bere aldetik adieraziko ditu konpromiso hauen guztizko zenbatekoak:
- a) Baterako negozioetako partaidetzarekin lotuta, kapital-inbertsioak egiteko hartutako konpromisoak, eta beste partaideekin batera kapital-inbertsioak egiteko hartutako konpromisoetan duen partea, eta
 - b) Baterako negozioek bere kapital-inbertsioak egiteko hartutako konpromisoetan duen partaidetza.
4. Baterako negozioei dagozkien zenbatekoak banakatuko dira balantzeko, galdu-irabazien kontuko, eskudiru-fluxuen egoerako eta ondare garbiko aldaketen egoerako partida adierazgarri bakoitzerako. Informazio hori gehituko da enpresak parte hartzen duen negozio bateratu guztientzat.

● **GARRANTZITSUA: Epigrafe hau ez dago normalizatuta. Aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.**

21. SALTZEKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ-KORRONTEAK ETA ETENDAKO ERAGIKETAK

1. *Etendakotzat sailkatu behar den jarduera bakoitzeko, adieraziko da:*
- a) *Etendako jardueren sarrerak, gastuak eta zerga aurreko emaitza, galdu-irabazien kontuan kontabilizatuta daudenak.*
 - b) *Aurreko emaitzari dagokion mozkinen gaineko zergaren gastua.*
 - c) *Etendako jardueren ustiapen, inbertsio eta finantzaketako jardueri egoztekoak diren diru-fluxu garbiak.*
 - d) *Jarduera hori lotutako ondare-elementuen deskripzio xehea, zenbatekoa adieraziz eta sailkapen hori egitera eraman duten zirkunstantziak azalduz.*
 - e) *Aurrez aurkeztutako eta, etendako jardueri dagozkionak izanik, aurreko beste ekitaldi batean besterentzearekin edo bestela xedatzearekin zuzenean erlazionatuta dauden zenbatekoetan uneko ekitaldian egiten diren doikuntzak.* Edota, bestela, besterentze hori ez egiteagatik sortutakoak.
 - f) *Lehenago etendako jarduera moduan aurkeztu arren, azkenean besterendu ez diren jardueri buruzko emaitzak.*
2. Saltzeko mantendutakoen artean sailkatu beharreko aktibo ez-korronte bakoitzeko edo elementu-multzo besterengarri bakoitzeko, etendako jarduerak barne, adierazi beharko da:
- a) *Ondare-elementuen deskripzio xehea, zenbatekoa adieraziz eta sailkapen hori egitera eraman duten zirkunstantziak azalduz.*
 - b) *Elementu esanguratsu bakoitzeko, galdu-irabazien kontuan edo ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian kontabilizatutako emaitza.*
 - c) *Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteei edo elementu-multzo besterengarri dagokienez, aktibo horiek aurreko ekitaldi batean besterentzearekin edo bestela xedatzearekin zuzenean lotuta, lehenago aurkeztutako zenbatekoetan uneko ekitaldian egin diren doikuntzak.* Edota, bestela, besterentze hori ez egiteagatik sortutakoak.
3. *Aktibo ez-korronte bat edo elementu-multzo besterengarri bat saltzeko mantendutakoen artean sailkatzeko baldintzak ekitaldia itxi ondoren baina urteko kontuak formulatu baino lehen betetzen badira, enpresak ez ditu saltzeko mantendutakotzat kalifikatuko urteko kontuak formulatzean.* Hala ere, aurreko idatz-zatiko a) letran deskribatutako informazioa eman beharko du horri buruz.

- **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau partzialki normalizatuta dago (M21 orrialdea). Epigrafe honetan letra etzanez idatzita dagoen zatia normalizatuta dago. Eman beharreko gainerako informazioa, aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

22. EKITALDI-ITXIERA ONDORENGO GERTAERAK

Enpresak adierazi beharko ditu:

1. Ekitaldiaren itxiera-datan bazeuden zirkunstantziak azaleratzen dituzten itxiera ondorengo gertaerak, izaerarengatik, urteko kontuetako zifretan doikuntzak egitera behartzen ez dutenak, baina memoria jasotako informazioa aldatzera behartzen dutenak.
2. Ekitaldiaren itxiera-datan ez zeuden zirkunstantziak erakusten dituzten itxiera ondorengo gertaerak, garrantzitsuak direnean eta gertaera horien berri ez emateak erabiltzaileen gaitasuna murriztuko balu urteko kontuak ebaluatzeko. Zehazki, itxiera ondorengo gertaera deskribatuko da, eta ondorioen estimazioa egingo da. Gertaera horren ondorioak estimatu ezin badira, espresuki adieraziko da estimazioa ezin izan dela egin, ezintasunaren arrazoiak eta baldintzak azalduz.
3. Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren aplikazioa zalantzan jar dezaketen urteko kontuak itxi ondorengo gertaerak, hauek adieraziz:
 - a) Itxiera ondorengo gertaeraren deskripzioa eta izaera (funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren aplikazioari buruzko zalantza sortzen duen faktorea).
 - b) Itxiera ondorengo gertaerak enpresaren egoeran egin dezakeen inpaktu potentziala.
 - c) Itxiera ondorengo gertaera arindu dezaketen faktoreak, halakorik dagoenean.

- **GARRANTZITSUA:** Epigrafe hau ez dago normalizatuta. Aparteko orri batean kontsignatu beharko da eta Memorian txertatu, dagokion idatz-zatian.

23. LOTURADUN ALDERDIEKIKO ERAGIKETAK

1. Loturadun alderdiekiko eragiketei buruzko informazioa kategoriaka emango da, kategoria hauek bereiziz:
 - a) Erakunde gurasoa.
 - b) Taldeko bestelako enpresak.
 - c) Enpresa partaide den baterako negozioak.
 - d) Enpresa elkartuak.
 - e) Baterako kontrolpeko enpresak edo eragin garrantzitsua egiten zaienak.
 - f) Enpresako edo erakunde gurasoko zuzendaritzan funtsezkoa den pertsonala.
 - g) Bestelako loturadun alderdiak.
2. Loturadun alderdiekin egindako eragiketak eta eragiketa horiek egoera-orri finantzarioetan izan duten ondorioa ulertzeko behar den informazio guztia emango du enpresak, besteak beste, ondoren zehazten diren hauek:
 - a) Loturadun eragiketak zein pertsona edo enpresarekin egin diren, alderdi bakoitzaren identifikazioa eta bakoitzarekin izandako harremanaren izaera.
 - b) *Eragiketaren xehetasunak eta zenbatekoa*, jarraitutako prezio-politika azalduz, eta enpresak loturadun alderditzat hartzen ez dituen alderdiekin egiten dituen antzeko eragiketetan erabiltzen dituenekin erlazionatuz. Loturadun alderditzat hartzen ez direnekin egindako antzeko eragiketarik ez badago, eragiketaren zenbatekoa zehazteko erabili diren irizpideak eta metodoak.
 - c) *Eragiketak enpresari eman dion irabazia edo galera* eta loturadun alderdi eragiketari buruz bere gain hartu dituen funtzioen eta arriskuen azalpena.
 - d) *Burutu gabeko saldo aktibo nahiz pasiboen zenbatekoa, epeak eta baldintzak, saldo horiek kitatzeko ezarritako kontraprestazioaren izaera, aktiboak eta pasiboak finantza-tresna mota bakoitzaren arabera elkartuta (enpresaren balantzean azaltzen den egitura gordez), eta emandako eta hartutako bermeak.*

- e) *Aurreko burutu gabeko saldoei dagokienez, kobrantza zalantzarriko egindako balio-zuzenketak.*
- f) *Ekitaldian loturadun alderdien zor kobraezin edo kobrantza ondorioz kontabilizatutako gastuak.*
3. *Nolanahi ere, loturadun alderdiekin egindako eragiketa mota hauek guztiak adierazi behar dira:*
- a) *Aktibo eta ez-korronteen salmentak eta erosketak.*
- b) *Zerbitzua ematea eta hartzea.*
- c) *Finantza-errentamenduko kontratuak.*
- d) *Ikerketa eta garapeneko transferentziak.*
- e) *Lizentziei buruzko akordioak.*
- f) *Finantzaketa-akordioak, maileguak eta kapital-ekarpenak barne, dela eskudiruz dela espezieetan egindakoak. Ondare-tresnak eskuratzeko eta besterentzeko eragiketetan, kopurua, balio nominala, batez besteko prezioa eta emaitza zehaztuko dira, aurreikusitako azken xedea adieraziz eskuratzekak direnean.*
- g) *Abonatutako eta zordundutako interesak; eta baita sortutako baina ordaindu edo kobratu gabekoak ere.*
- h) *Dibidenduak eta banatutako bestelako mozkinak.*
- i) *Berreak eta abalak.*
- j) *Ordainsariak eta kalte-ordainak.*
- k) *Pentsio-plan eta bizitza-aseguruetarako ekarpenak.*
- l) *Finantza-tresna propioen bidez konpentsatu beharreko prestazioak.*
- m) *Erosterko edo saltzeko aukerengatik sortutako konpromiso irmoak, edo enpresaren eta loturadun alderdiaren artean baliabide edo obligazioen transmisioa sor dezaketen bestelako tresnak.*
- n) *Kostuak banatzeko akordioa, loturadun hainbat alderdik erabiliko dituzten ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko jardueraren inguruan.*
- o) *Diruzaintza kudeatzeko akordioak, eta*
- p) *Zorrek barkatzeko akordioak eta zorren preskripzioa.*
4. *Aurreko informazioa agregatuta aurkeztu ahal izango da antzeko izaera duten partidak direnean. Baina loturadun eragiketak garrantzitsuak badira zenbatekoagatik edo urteko kontuak behar den bezala ulertu ahal izateko, eragiketa bakoitzari buruzko informazioa bereizita emango da beti.*
5. *Ez da informaziorik eman beharko, enpresaren ohiko trafikoko eragiketak direnean, merkatuko baldintza normaletan egiten direnean, zenbatekoari buruz garrantzi txikikoak direnean eta gainera garrantzirik ez dutenean enpresaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusteko.*
